

BIZKAIAREN EGOERA EUSKAL HERRIAREN ETA EUROPAR BATASUNAREN ALDEAN

Hurbilpen bat
Egitura-Adierazleen bitartez

EGILEAK:



Euskal Herriko ekonomia eta gizarte garapenerako behategia
Observatorio para el desarrollo socio-económico de Euskal Herria
Observatoire pour le développement économique et social du Pays Basque

LAGUNTZAILEA:



Bizkaiko Foru
Aldundia

Berrikuntza eta Ekonomi
Sustapen Saila

Diputación Foral
de Bizkaia

Departamento de Innovación
y Promoción Económica



Udako Euskal Unibertsitatea

2007ko MARTXOA

Euskal Herriko ekonomia eta gizarte garapenerako behategia
Observatorio para el desarrollo socio-económico de Euskal Herria
Observatoire pour le développement économique et social du Pays Basque



Martin Ugalde Kultur Parkea
Gudarien etorbidea 8, 20140 Andoain • Tel. zka: (0034) 943 304 365
E-posta: gaindegia@gaindegia.org • www.gaindegia.org

L.G. SS-548-2007

LANAREN EGILEA:

Igor Uriarte

ADITU TALDEA:

Joxe Mari Zendoia

Antón Borja

Solange Mariluz

Mikel Zurbano

Yolanda Jubeto

Mila Amurrio

Galder Guenaga

Nekane Jurado

Iñaki Iurrebaso

Amaia Elizagarate

HITZAURREA

Euskal Herria zer den agerrarazteko sortu zen Gaindegia; izan ere, eskura dagoen informazioa egoki kudeatzeko premia dugu, ikuspegiz aldatzeko. Eta ikuspegia da, hain zuzen, gaur egun aldatze bidean dagoena: ikuspegi globalak baldintzatzen ditu tokian tokiko errealitateak, eta horrek, noski, informazio eguneratua izatea eskatzen digu.

Tresna dinamikoak eta malguak behar ditugu, zehatzak, gure herriaren egoera testuinguru globalean kokatzeko; lan honek ekarpen bat egin nahi du tresna horiek eskuratzeko. Egiturazko Adierazleek, estandar europarrak betetzen dituzten aldetik, tresna interesgarriak ez ezik, oso egokiak izan daitezke geure buruaren irudi erreala bistarazteko. Adierazle horiek erabiltzearen xedea da geure burua Europar Batasuneko politikek gizartean, ekonomian eta ingurumenean esku hartzeko erabiltzen dituzten irizpideen arabera neurtzea, ez baitugu ahaztu behar Europar Batasunak irizpide horiek baliatzen dituela gizarte kohesioa indartzeko eta garapen ekonomikoa bultzatzeko, munduko herrialde aberatsekin lehian. Horrenbestez, gure herria nola dagoen jakin nahi dugu, munduan egun garrantzi handiena duten auziei erreparatuta.

Esan bezala, lan honek bide berri bat jorratu nahi du, eta poztuko ginateke beste lan askok ere bide horri jarraituko baliote, gutxi baititugu, oraindik, Euskal Herria bere osotasunean aztertzen dituzten lanak. Ziur gaude, hala ere, lehen urrats hau oso sendoa dela, bertan parte hartu duten pertsonak eta lanaren emaitzak lehen mailakoak baitira.

Lanaren balioaz ziur bagaude ere, ez dugu ikuspegi baikorregirik edo arranditsurik eman nahi, aski dugu agerikoa bistaratzearekin. Nabarmentzekoa da, lan hau eta beste batzuk egiteko, zailtasunak izan ditugula Iparraldeko eta Nafarroako Foru Komunitateko datuak lortzeko. Hori da errealitatea. Halaber, azpimarratu beharrean gaude EUSTAT erakundea aitzindaria izan dela gure errealitatearen zati bat adierazle sistema honetara biltzeko, baina ez dugu ahaztu behar bide luzea dugula egiteko, azterlan hauek homologatzeko moduko estatistika-oinarriak izan ditzaten.

Hitzaurre hau baliatu nahi dut eskerrak emateko lanaren egileari eta aditu taldeari, egin duten ahaleginagatik, Udako Euskal Unibertsitateari, gure lankide izateagatik, eta Bizkaiko Foru Aldundiko Berrikuntza eta Ekonomi Sustapen Sailari, eman digun laguntza ekonomikoagatik. Lantalde horren ekarpenik gabe, nekez emango genuen urrats txiki hau.

Xabier Isasi Balanzategi
Gaindegia Lehendakaria

EDUKIEN AURKIBIDEA

• LABURPEN EXEKUTIBOA	6
• EKONOMIA DINAMIKO ETA LEHIAKORRA GARATZEN	12
○ Ikuspegi orokorra	12
○ Berrikuntzaren aldeko politika publikoak	15
▪ 1. Giza baliabideak	15
▪ 2. I+G-ko inbertsio publiko eta pribatuak	16
▪ 3. Zientzia eta teknologia alorreko eragileak	19
• GIZARTE-BABESA KOHESIOAREN OINARRIA	21
○ Ikuspegi orokorra	21
○ Enplegua gizarte-integratziorako osagai nagusia	22
▪ Enplegu maila	22
▪ Langabeziaren diagnostikoa	24
○ Lan-merkatuaren inguruko alderdi garrantzitsuak	18
○ Gizarte-inklusihoa bultzatzen	27
○ Hezkuntza jasotzeko aukerak	31
▪ Lisboako Estrategiaren helburuak	31
▪ Euskal Herriko egoera	33
• INGURUMENAREN HONDAMEN GERO ETA HANDIAGOA ETA HAZKUNDE EKONOMIKOA BEREIZTEN	39
○ EAEko ingurumenaren egoera orokorra	40
• INFORMAZIO-ITURRIAK	50
• ERANSKINA: EGITURA-ADIERAZLEEN TAULAK	53

GRAFIKOEN AURKIBIDEA

2.1. G.- Biztanleko BPG, erosteko ahalmena parekatuta (1.1 adierazlea)	12
2.2. G.- Euskal Herriko biztanleriaren eboluzioa.....	13
2.3. G.- Biztanleko BPG, EB-25=100 (1.2 adierazlea)	13
2.4. G.- Eskulan landunaren produktibitatea, EB-25=100 (2. adierazlea)	14
2.5. G.- 25-64 urte bitarteko hezkuntza-maila (kopuru osoaren %), 2002. urtean.....	15
2.6. G.- I+G-ko inbertsioa, BPGren ehunekoan (5. adierazlea)	16
2.7. G.- Jakintzaren ekonomiarako bidean.....	17
2.8. G.- SCIren eta ICYPTren sailkapena, autonomia-erkidegoen arabera.....	19
2.9. G.- Enpresen inbertsioa, BPGren ehunekotan (6. adierazlea)	20
3.1. G.- Enplegu-tasa orokorra (3.1. adierazlea)	22
3.2. G.- Emakumezkoen enplegu-tasa (3.2. adierazlea)	23
3.3. G.- Gizonezkoen enplegu-tasa (3.3. adierazlea)	23
3.4. G.- Zaharragoen (55-64 urte) enplegu-tasa, guztira (4.1. adierazlea)	24
3.5. G.- Langabezia-tasa, 2004an.....	24
3.6. G.- Pobrezia murgiltzeko arrisku-tasa, transferentzia sozialak egin eta gero (9.1. adierazlea)	
3.7. G.- Pobrezia murgiltzeko arrisku-egoeren banaketa EAEn.....	28
3.8. G.- Gastu soziala, BPGren ehunekotan, 2003an.....	29
3.9. G.- Gastu soziala biztanleko, erosteko ahalmena parekatuta, 2003an.....	29
3.10. G.- Iraupen luzeko langabezia-tasa (11.1. adierazlea)	30
3.11. G.- Emakumezkoen iraupen luzeko langabezia-tasa (11.2. adierazlea)	30
3.12. G.- EAEn, trebakuntza handiko sektoreetan diharduten 16-64 urte bitarteko landunak.....	33
3.13. G.- Eskola behar baino lehenago utzitako ehunekoaren eboluzioa, 2004an (10. adierazlea)	
3.14. G.- Zientzia eta teknologiako graduatuak, 2003an (8. adierazlea)	34
3.15. G.- Bigarren Hezkuntza gainditzen duten 25-64 urte bitarteko hezkuntza-maila, 2002an (kopuru osoaren %)......	35
3.16. G.- Bigarren Hezkuntza gainditzen duten 20-24 urte bitartekoak, sexuen arabera, 2004an (7.2 eta 7.3. adierazleak)	36
3.17. G.- Etengabeko prestakuntzan dabiltzan 25-64 urte bitarteko biztanleen ehunekoa (12. adierazlea)	36
3.18. G.- Hezkuntzako gastu publikoa, BPGren ehunekotan (13. adierazlea)	37
4.1. G.- Uren kalitatea (EAE, 2000-2004).....	39
4.2. G.- Airearen kalitate txarreko edo oso txarreko egunak (EAE 2001-2004).....	40
4.3. G.- Energiaren azken kontsumoa, sektoreka (kpb, kilotona petrolioaren baliokide).....	42
4.4. G.- Baliabideen kontsumoa eta energia-efizientzia (1992-2004) (14. adierazlea)	42
4.5. G.- Biztanleko materialen beharra, guztira, EAEn.....	43
4.6. G.- Artifizialdutako lur-azalera, EAE-n, mota eta urteko (hektareak).....	44
4.7. G.- Sortutako hondakinak (1998-2004).....	45
4.8. G.- Berotegi-efektuko gasak isurtzen dituzten iturri nagusiak, EAEn, 1990-2004 bitartean.....	45
4.9. G.- Ekoefizientziaren eboluzioa, EAEn (indizea 1990=100).....	45
4.10. G.- Garraioaren ekoefizientzia (1990-2004).....	47

1.- LABURPEN EXEKUTIBOA: BIZKAIA LISBOAKO ESTRATEGIAREN BAITAN

2000ko martxoan, Europar Kontseiluak Lisboako Estrategia zehaztu zuen, hurrengo hamarkadan zehar Europar Batasun osoan helburu estrategiko hau lortzeko: "Ezagutzan oinarritutako munduko ekonomia lehiakorrena eta dinamikoena bihurtzea, hazkunde ekonomiko iraunkorra izanik, enplegu gehiago eta hobea lortuaz eta gizarte-kohesioari eutsiaz"¹.

Estrategia horrek hiru alderdi uztartzen dituen ikuspegia du oinarrian. Hauek dira alderdi horiek: ekonomiaren berrikuntza, gizarte-kohesioa eta ingurumen iraunkorra. Hiru ardatz horiek bata bestean oinarritu eta elkar sendotzen dute. Etengabeko berrikuntzaren bidez produktibitatea handitzeko beharrari ematen zaio garrantzia, baina ez helburu ekonomikoei begira bakarrik, produktibitatearen etengabeko hazkundeak gizarte kohesionatuagoa lortzeko baldintzak ekartzen dituela uste baita. Bestalde, estrategia horretan ingurumena aintzat hartzea erabaki zuen Göteborgeko Kontseiluak, eta orduan adierazi zutenenez, BPGren hazkundeak eta ingurumenaren hondamenaren gorakada bereizten lagundu dezakeen gakoetako bat da berrikuntza. Zentzu horretan, gizarte kohesionatuak eta ingurumen txukunekoak dira gizarte sormena eta berrikuntza garatzeko esparru egokiena. Horrenbestez, Lisboako Estrategian jasotako helburu eta politikak elkar osatzen eta sendotzen dute.

Politika handi horietako bakoitzerako estrategia eta jarraibide batzuk finkatu ziren eta, zenbait kasutan, helburu kuantitatiboak ere bai. Politika horien emaitzen jarraipena egiteko, koordinazio-metodologia irekia onartu zen. Hainbat erakundek eta eragilek parte hartzen dute metodologia horretan, eta garrantzi handia ematen zaio helburu kuantitatiboak finkatzeari, bai eta helburu horien emaitzak egitura-adierazle sintetiko mugatu batzuen bidez neurtzeari ere.

Prozesua osatzeko, urtean behin, lehen seihilekoan egiten den Europar Kontseiluan, *Udaberriko Txosten* bat onartzen dute EBko gobernuburuak, eta bertan estrategia honen emaitzak ebaluatu, aurrerapenaren balantzea egin, jarraibide berriak onartu eta aurrera begirako lehentasunak zehazten dira, Lisboan finkatutako helburuak lortzen joateko.

¹ Lisboako Europar Kontseilua: Presidentziaren ondorioak. 2000ko martxoaren 23 eta 24a.

Bestalde, Europako estatu eta erregioek oso abiapuntu eta egoera desberdinak dituztela jakinik, europar jarraibideak estatu nahiz erregio mailako neurri politikoak bihurtzeko eta helburu zehatzak finkatzeko beharra azpimarratu zuen Kontseiluak.

Lisboako Estrategiaren arduradunak konturatzen dira eraldaketak lortzeko prozesua motel samar doala eta erreformak bizkortzeko aukera aztertzen ari dira, AEBek lortutako berrikuntza-mailara eta enplegutasara iristeko helburuz, Europako bizikidetzaren ereduaren berezitasunen ezaugarri diren bi alderdi hauek baztertu gabe, betiere: epe luzearako gizarte-kohesioa eta ingurumen iraunkorra. Euskal Herria gainerako herrialdeak baino posizio atzeratuago batetik abiatzen da, eta ahalegin handiagoa egin behar du politika askotan Europarekin bat egiteko.

Lan honek bi helburu nagusi ditu: Bizkaiko egoera laburbiltzea, batetik, 2000. urtean aurkeztu zirenez geroztik Lisboako helburuak zenbatean lortu diren ikusteko erabilitako egitura-adierazleak² oinarritzat hartuta, eta estrategia horren hiru zutabe nagusien joerak eta aurrera begira dauden aukerak aztertzea, bestetik.

Bizkaiko egoeraren gaineko azterketa orokorra egiten badugu, aipatutako helburuak lortzeko finkatutako sailkapenaren arabera, gure batez besteko egoera tartekoa dela ikusiko dugu, EBko kideen batez bestekoarekiko atzerapen handirik gabe, baina 1. taldearen atzetik adierazle gehienek kasuan (1. taula).

² *Communication sur les indicateurs structurels*. COM (2003)585. Egitura-adierazleak Batzordeak eta Kontseiluak erabakitako aldagai estatistiko batzuk dira. Lisboako helburuekin dute zerikusia, eta EBko herriek eta eskualdeek lortutako aurrerapenak neurtzeko erabiltzen dira. Emaitzak AEBekin eta Japoniarekin alderatzea dago, halaber. Hasiera-hasieratik (2000) adierazle kopurua garatuz joan da Kontseiluaren eta Batzordearen arteko negoziazio-prozesuaren bidez, eta ehundik gora adierazle ditugu orain. Guztiak dira garrantzitsuak helburuen lorpenaren inguruko xehetasunak ezagutzeko, baina, halere, Batzordeak zerrenda bat osatu du oinarritzko 14 adierazlerekin. Lisboako Estrategiako Egitura Adierazleak izenez ezagutzen da zerrenda hori.

1.1 TAULA: EB-KO ESTATUEN SAILKAPENA TALDEKA, LISBOAKO HELBURUEN ARABERA, ETA EAE-KO EGOERA³

	1. taldea (+)	2. taldea	3. taldea	4. taldea	5. taldea (-)
Biztanleko BPG EHPren arabera (eros ahalmenaren parekotasunaren arabera)	LU, IE	FR, NL, FI, SE, DK, UK, DE, AT, IT, BE, EAE	EL, CY, SI, ES , MT	CZ, SK, HU, PT	PL, LT, LV, EE
Landun bakoitzeko BPGd EHPren arabera	FR, BE, IE, UK, IT, LU, EAE	ES , EL, DE, NL, DK, SE, FI, MT, AT	CY, PT, CZ, HU, SI	SK, PL, EE, LT, LV	
Enplegu-tasa (15-64 urte)	UK, NL, DK, SE	FR, PT, AT, DE, CZ, FI, CY, IE, EAE	BE, LU, ES , EE, LV, LT, SI	PL, SK, HU, EL, IT, MT	
Langile zaharragoen (55-64 urte) enplegu-tasa	CY, IE, UK, NL, DK, AT	PT, ES , DE, CZ, EL, SE, LU, MT, EAE	FR, BE, FI, EE, IT, SI	LT, LV, PL, SK, HU	
I+Gko gastuak, BPGd-ren %an	SE, FI	FR, BE, DE, AT, DK	ES , IE, UK, IT, SI, CZ, HU, NL, LU, EAE	PT, CY, MT, SK, PL, LV, LT, EE, EL	
Gazteen hezkuntza-maila	IE, SE, FI, PL, CZ, SK, SI, HU	FR, UK, EL, CY, EE, LT, AT, BE, MT, EAE	NL, DE, LV, LU, DK	PT, ES , IT	
Enpresen inbertsioa BPGd-ren %an	ES , EL, CZ, SK, SI, EE, LV, MT, EAE	IE, BE, AT, DK, LT, PT	FR, DE, NL, IT, CY, LU	SE, FI, PL, UK	
Prezioen maila alderatua	IT, UK, BE, LU, CY, NL, AT, FR, DE	ES , EL, EAE	PT, SI, SE, FI, IE, MT	EE, DK, HU, CZ, LV, LT, PL, SK	
Pobrezia murgiltzeko arrisku-tasa, transferentzia sozialak egin eta gero	DK, SE, CZ, HU	BE, NL, DE, AT, SI, FI	FR, UK, PL, LT, LV, EAE	EE, SK, EL, MT, IT, ES , PT, IE	
Iraupen luzeko langabezia-tasa	UK, SE, AT, CY, NL, DK, LU	FR, BE, ES , PT, IE, FI, CZ, HU, SI, EAE	EL, IT, DE, EE, LT, LV, MT	PL, SK	
Enplegu-tasa erregionalen sakabanatzea	EL, NL, AT, PT	FR, DE, FI, CZ, UK, SE, EAE	BE, ES , HU, PL, SK	IT	
Berotegi-efektuko gasen isurpena, guztira	CZ, SK, HU, PL, EE, LT, LV, CY	FR, UK, SE	EL, DE, FI, SI, NL, EAE	BE, LU, PT, IT, IE, DK, AT, ES	
Ekonomiaren energia-intentsitatea	AT, DE, DK, IE, EAE	FR, IT, NL, LU	ES , PT, UK, EL, MT, CY, FI, SE, BE	EE, LT, LV, PL, CZ, SK, HU, SI	
Salgaien garraioaren bolumena BPG-ren %an	SI, HU, BE	UK, DK, CY, MT, EL, IT, PT, SE	FR, LV, IE, ES , DE, AT	LT, NL, PL, LU	CZ, EE, SK

³ Iturria: Europako Batzordea. AT: Austria; BE: Belgika; CY: Zipre; CZ: Txekiar Errepublikak; DE: Alemania; DK: Danimarka; EE: Estonia; EL: Grezia; ES: Espainia; FI: Finlandia; FR: Frantzia; HU: Hungaria; IE: Irlanda; IT: Italia; LT: Lituania; LV: Letonia; LU: Luxenburgo; MT: Malta; NL: Herbehereak; PL: Polonia; PT: Portugal; UK: Erresuma Batua; SE: Suedia; SI: Eslovenia; SK: Eslovakia
Euskal Herriko ekonomia eta gizarte garapenerako behategia
Observatorio para el desarrollo socio-económico de Euskal Herria
Observatoire pour le développement économique et social du Pays Basque

- Bizkaiko **biztanleriaren bizi-maila**, biztanle bakoitzeko barne-produktu gordinaren (BPG) batez bestekoaren bidez neurtua, EB-15ek eta EB-25ek izandako hazkundearen gainetik handitu da joan den bost urtean. Hala, EB-25=100 izanik, 2000ko %105,9tik 2005eko %118,4ra pasa da Bizkaian, erosteko ahalmena parekatuta; EB=15 izanik, berriz, %109,9 eta %109,2 izan da emaitza, hurrenez hurren (1. adierazlea).

Bizkaiko enplegu-tasa %54,1tik %62,7ra handitu da 2000-2005 bitartean. Hazkunde handi samarra izan arren, ez da Lisboan 2005erako finkatutako tarteko helburua lortu, %67ko enplegu-tasa alegia, eta ez du ematen 2010erako finkatutako helburua ere (%70) lortzerik egongo denik. Gauza bera esan behar da EB-25i buruz, 2005ean %62,6ekoa baitzen batez besteko enplegu-tasa. Nolanahi ere, adierazle horren bilakaera askoz hobeia izan da Bizkaian EBn baino, EB-25en batez bestekora iritsi baita nahiz eta 2000. urtean ia 6 puntu atzetik egon (3.1 adierazlea).

Bizkaiko enplegu-tasaren gorakada emakumezkoen enplegu-tasak izandako hazkundeari esker gertatu da gehienbat, %39,3tik %52,2ra hazi baita 2000tik 2005era bitartean. Joerak horrelaxe jarraituz gero, 2010erako %60en finkatutako azken helburua, 2000. urtean hain urruti ematen zuena, lorgarria izan liteke. Halere, 2005erako %57an finkatutako tarteko helburua lortu gabe dago oraindik. Azpimarratzekoa da, bestalde, 2000. urtean Bizkaiko emakumezkoen enplegu-tasa EB-25eko batez bestekoaren azpitik egon arren, 2005eko amaierarako zazpi puntutan murriztu zela alde hori. EB-25en % 53,6tik %57,0ra handitu da tasa hori 2000-2005 bitartean (3.2 adierazlea).

Gizonezkoen enplegu-tasak hazkunde motelagoa izan du emakumezkoenak baino: 2000. urtean %68,8 eta 2005ean %73,2. Dena den, azken urtean beheraka egin du zertxobait eta 2002an lortutako mailaren azpitik geratu da. Lisboako Estrategiak ez zuen gizonentzat helburu berezirik finkatu, tasa orokorrean jasota gelditzen baitziren haientzako helburuak. EBko batez bestekoarekin alderatuta, Bizkaia gainetik gelditu da azken urteotan (3.3 adierazlea). Baten eta bestearen arteko alde hori 55-64 urte bitarteko jarduera-tasari zor zaio, estatu batetik bestera erretiro-adinean dauden aldeei bereziki, Espainiako estatua baita erretiratzeko adin zaharrena duten herrialdeetako bat.

Nahiz eta gurean berezitasun hori eduki, oso zaila izango da langile zaharragoen enplegu-tasa 2010erako helburura, %50era alegia, iristea. Ezintasun hori iragan hurbiletik jasotako lan-egituraren ondorioa da, emakumeak 70eko hamarkadara arte ez baitziren modu orokorrean lan-merkatuan sartu, eta, horren ondorioz, 55-64 urte bitarteko emakumeek enplegu-tasa txikia dute. Joera hori nekez aldatu daiteke, gainera. Hortaz, 2005ean Bizkaiko gizonezko zaharragoen enplegu-tasa %54,7 bazen ere, EB-25eko batez bestekoa baino lau puntu handiagoa alegia (3.3 adierazlea), adin-tarte bereko emakumeen artean horren erdia baino gutxiago zen enplegu-tasa, %24,7, EB-25ek 2004an zuen %31,7 baino nabarmen txikiagoa, beraz (3.2 adierazlea). Sexuen arteko desoreka handi horren ondorioz, Bizkaiko 55 urtetik gorako enplegu-tasa orokorra (4.1 adierazlea) %39,7 zen 2005ean, EB-25eko batez bestekoaren (%41, 2004an) azpitik. Lisboan finkatutako helburua 2010erako %50era iristea zen, baina zaila izango da maila horretara iristea Bizkaiarentzat, Euskal Herriarentzat eta Europar Batasunarentzat berarentzat ere.

Nabarmenezkoa da, bestalde, Bizkaiak jasandako industria-birmoldaketak, 1982-1994 urte bitartekoak bereziki, eragin handia izan zuela hainbat sektoretan, aurre-erretiro eta enplegu-murrizketa handiekin. Horrek langile zaharragoen artean izan zuen eragina gehienbat. Hortaz, tasa horrek gora egitekotan, adin-tarte horretara iristen diren langileengatik izango da eta ez lehendik zeudenak beste lanpostu batean hasten direlako, azken horietako gehien-gehienak biztanleria landunetik kanpo gelditu baitira.

Enpleguaren kalitateari dagokionez, Lisboako Estrategian iragarritako erreforma-neurriek ez dute espero izandako eraginik izan. Aldi baterako eta lanaldi partzialeko kontratuak dira oraindik ere gehien erabiltzen direnak, eta halakoekin zerbitzuetan sortzen da enplegu gehiena, ezaugarri hauek izanik: soldata txikiak, batez bestekoaren azpitik dagoen produktibitatea, etengabeko prestakuntza jasotzeko aukera gutxi eta lanpostua gordetzeko bermerik ez.

- **Enplegu-tasen eboluzio positiboa Lisboako helburuei begira.** Joera horrek bere alde txarra ere izan du, eskulanaren produktibitatearen hazkundera moteldu egin baita, 2000ko %130,6tik %122,3ra jaitsiz 2004an (EB-25=100); azken urtean gainera, bost puntu murriztu da tasa hori. Moteltzeko joera hori EB-15en ere ikusi da, %108,4tik %106,4ra igaro baita tarte berean (2. adierazlea). Harrigarria bada ere, estatistiken arabera behintzat, Bizkaiko produktibitatea Europako eta Euskal Herriko gainerako herrialdeetako batez bestekoaren oso gaineratik dago, eta Frantziak, Luxenburgok, Belgikak eta Irlandak bakarrik gainditzen dute.

Lisboako Estrategian produktibitatea hobetzeko proposatutako neurriei dagokienez:

BPGren aldean ikerketa eta garapen (I+G) gastuetara bideratutako kopurua %3an finkatu zen 2010erako, baina Bizkaian moteldu egin da ehuneko hori, 2001ean BPGren %1,4 hartzen baitzuen, eta 2005ean, berriz, %1,34, Euskal Herriko gainerako herrialdeen azpitik (5. adierazlea) eta EB-25eko batez bestekoaren oso atzetik (%1,86, 2004an), zer esanik ez Suediatik (BPGren %3,86 2005ean) edo Finlandiatik (BPGren %3,46 2004an).

Bartzelonan⁴ 2010erako finkatutako helburua (BPGren %3) lortezina dirudi bai Bizkaian bai Euskal Herri osoan, eta esparru horretara bideratutako gastuak areagotu egin beharko dira, beraz, baina ez gastu publiko zuzenaren bidez bakarrik, baizik eta sektore pribatua ere akuilatuz, sektore horrek gastuaren bi herenera arte finantzatu beharko luke eta.

Bizkaiko **enpresen inbertsioa** EAEko batez bestekoa baino txikiagoa izan zen 2004an (BPGren %20,3 eta %24,9, hurrenez hurren), baina EB-25eko batez bestekoa baino handiagoa, urte horretan %17,1ekoa izan baitzen inbertsioa Europar Batasunean (6. adierazlea).

Balio honen bidez, enpresen inbertsio guztiak neurtzen dira, ondasun higiezinetan egindakoak barne. Higiezinaren sektorearen ezaugarriak direla eta, eta enpresa askok sektore horretan egindako inbertsioen ondorioz, EBko batez bestekoaren oso gaineratik gaude, eta kontuz ibili behar dugu alderaketak egin eta ondorioak ateratzeko garaian.

- **Gizarte-kohesioaren adierazleek joera desberdinak izan dituzte.** Pobrezia-egoerak ez atzera ez aurrera daudela ikusten da, transferentzia sozialak egin eta gero pobrezian murgiltzeko arrisku-tasa %17,1etik %16,5era murriztu baita EAEko biztanleen artean, 2000-2004 bitartean (2001ean adierazle hori %15ekoa zen EB-25en, eta 2003an %16 zela kalkulatu zen) (9.1 adierazlea). Tasa horrek sexuen arabera duen eragina aztertzen badugu, gizonen eta emakumeen arteko aldea ez murrizteaz gain, joan deneko lau urtean areagotu ere egin dela ikusten dugu. Horri emakumezkoen enplegu-tasak izandako gorakada gehitzen badiogu, argi eta garbi ikusten da emakumeek prekarietate handia dutela lanean.

Iraupen luzeko langabezia-tasak askoz joera hobea izan du Bizkaiko biztanleria osoaren artean (11.1 adierazlea), EAEn baino nabarmen gehiago murriztu baita: 2000ko %8,6tik 2005eko %2,5era. Joera on hori emakumeen iraupen luzeko langabeziak izandako beherakada izugarriari zor zaio: tasa hori %13,2koa zen 2000n eta %2,7ra murriztu zen 2005ean. Tarte berean, adierazle hori %5,5etik %2,3ra jaitsi zen gizonen artean (11.2 adierazlea). Iraupen luzeko langabeziak bilakaera ona izan arren, sortutako enplegua kaskarra izan da, ezegonkortasun-tasa handia eta soldata txikiak izanik bere ezaugarriak.

- **Ingurumenari** dagokionez, Europar Batasunak bat egin zuen Kyotoko Hitzarmenean adostutako helburuarekin, eta bi adierazle finkatu ditu Lisboako Estrategiaren barruan: berotegi-efektuko gasen isurketak %8 murriztea 2012rako eta ekonomiak energia-intentsitate handiagoa izatea.

Batzordearen SEC (2005)160 txostenean zehazten denez, EBko hamaika estatu (Alemania, Frantzia, Erresuma Batua eta Suedia, besteak beste) helburu horiek lortzeko bidean daude, eta gainerakoak (tartean Espainia), gero eta urrutiago (15 adierazlea). EAEn joera Espainiako batez bestekoa baino are larriagoa da, gainera.

1990-2004 bitartean, EAEn sortutako berotegi-efektuko gasen (BEG) isurketa zuzenak %35 handitu ziren, eta isurketa guztiak (isurketa zuzenak eta zeharkako isurketak, alegia) %22. 2004an 20,4 milioi tona CO₂-ren baliokidea isuri zen (24,6 milioi, isurketa zuzenak eta zeharkakoak kontuan hartuta). Horrek esan nahi isurketak %5 handitu direla 2003ren aldean.

⁴ Europar Kontseiluak 2002an egindako bilera.

2004an, biztanleko sortutako BEGak 11,6 tona CO₂-ren baliokidea izan zen gutxi gorabehera, 2003an EB-15ek (11) eta Espainiak (9,7) izandako neurrien gainetik, beraz.

Ez daukagu Bizkaiari buruzko datu zehatzik, baina IHOBek egindako txostenen arabera, Bizkaiaren egoera EAEko batez bestekoa baino larriagoa da. Hori argi ikusten da 2004an giza osasuna babesteko eguneko onargarria den batez besteko balioa 35 alditan gutxienez gainditu zituzten hamabost estazioak aztertzen baditugu. Hamabost estazio horietatik 9 Bizkaian daude, herri hauek hain zuzen ere: Alonsotegin, Zornotzan, Barakaldon, Basaurin, Bilbon, Durangon, Erandion, Portugaleten eta Zierbenan.

Ekonomiaren energia-intentsitateari buruzko adierazleari dagokionez (14. adierazlea), BPGko 1.000 €-ko 164 kg petrolio-baliokideko energia-intentsitatea dauka EAEk. Horrek Irlandaren eta Alemaniaren parean jartzen gaitu, eta EB-15en azpitik. Biztanleko banaketari dagokionez, EB-15en baino %15 txikiagoa da energiaren barne-kontsumo gordina EAEn. Biztanleko energiaren azken kontsumoa neurtzen badugu, kopuru hori %4ra murrizten da.

Energiaren azken kontsumoa %38 handitu da 1990-2004 bitartean. 2004an, kontsumo hori 2003an baino %4,6 handiagoa izan zen. 1990-2004 bitartean, euskal ekonomiaren energia-intentsitatea %13 murriztu zen, baina 1997az geroztik intentsitate hori %2 handitu da.

Energia berriztagarriek EAEko energia-eskariaren %4,9 hartzen dute, eta %77ko hazkundera izan du energia horien eskariak 1990etik.

2.- EKONOMIA DINAMIKO ETA LEHIAKORRA GARATZEN


2.1. IKUSPEGI OROKORRA

Biztanleko BPGak hobera egin du enplegu-tasaren igoera handiari esker, baina Euskal Herriko ekonomiaren produktibitatea ez atzera ez aurrera dago.

2005. urtean, 2002an hasitako susperraldia sendotu zen Hegoaldean, eta %3,7 inguru hazi zen barne-produktu gordina. Tasa hori joan den lau urteko handiena izan da, eta Europako ekonomia guztien gainetik dago.

Iparraldeko hazkundera askoz txikiagoa izan zen, %2 ingurukoa, baina, halere, Frantziako Estatuko hazkundera baino handiagoa izan zen.


2.1 GRAFIKOA. BIZTANLEKO BPG
Erosteko ahalmena parekatuta (1.1 adierazlea)



Iturria: EUROSTAT, EUSTAT eta INSEE

Bestalde, Euskal Herrian Europan baino bizitasun demografiko txikiagoa dugu, eta bi eboluzio horiek (demografia eta BPG) bat egitean biztanleko BPGren hazkunde handiagoa dugu gurean. Joera horrek indar handia du 1996az geroztik, eta Hegoalde EB-25eko biztanleko batez besteko BPG baino 25 puntu gorago egotea eragin du horrek. Iparraldean, berriz, ez da gorabehera handirik egon azken hamar urteotan, eta EB-25en pareko maila dute.

2.2. GRAFIKOA. EUSKAL HERRIKO BIZTANLERIAREN EBOLUZIOA (Izatezko biztanleria*. Milakoetan)




Iturria: EUROSTAT, EUSTAT, INE, Udalbiltza

2001etik aurrera ez dira izatezko biztanleak eta zuzenbidekoak bereizten, eta erroldan daudenak bakarrik zenbatzen dira.

** Euskal Herriko datuak 1991ko erroldatik atera ditugu, EB-25i buruzkoak, berriz, 1995ekoak dira.

2.3 GRAFIKOA. BIZTANLEKO BPG, EB-25=100 (1.2. adierazlea)




Iturria: EUROSTAT, EUSTAT eta INSEE

Biztanleko BPGak izandako aldakuntza izaten da bizi-maila neurtzeko gehien erabiltzen den adierazlea, eta bi elementutan zatikatu daiteke adierazle hori⁵: produktibitatea eta enplegu-tasa. Azken urteotan EBko batez besteko joerak baino bilakaera hobea izan dugu gurean, baina ez produktibitatearen hazkuntzan izandako aldeengatik —ez baita halakorik egon eta bietan ere txikia izan da, gainera—, baizik eta alde handia egon delako bateko eta besteko enplegu-tasetan.

⁵ BPG / biztanleria = BPG / enplegua : biztanleria / enplegua = (BPG / enplegua) * (enplegua / biztanleria) = produktibitatea * enplegu-tasa.

2.4. GRAFIKOA. ESKULAN LANDUNAREN PRODUKTIBITATEA EB-25=100 (2. adierazlea)



Iturria: EUROSTAT, EUSTAT, INE eta INSEE

Euskal Herriko produktibitate-maila Europako batez bestekoa baino handiagoa da: 2004an %120ko indizea izan genuen EAEn, zertxobait handiagoa Nafarroa Garaian eta %110ekoa Iparraldean (EB-25=100). Aldiz, gure enplegu-tasa Europakoa baino txikiagoa izan da 2004ra arte, Nafarroa Garaian izan ezik, han 2000. urteaz geroztik EB-25eko batez bestekoaren gainetik ibili baita enplegu-tasa⁶.

Produktibitatearen hazkundera urtetik urtera hain apala izateko beste arrazoi bat enpleguaren hazkunde handia izan da (izendatzailea). Hazkunde hori lan-merkatuan aldi baterako kontratuak egiteko formula ugari daudelako gertatu da, batik bat. Horrek enplegua bultzatzen du, orokorrean, baina sortzen diren lanpostuak kalitate txarreko eta produktibitate txikiko enpleguak dira, gehienbat.

Enpleguaren bilakaera produktu edo zerbitzuen ezaugarrien arabera aztertzen badugu, ikusten da produktibitate txikiko sektoreek —neskametza, ostalaritza eta zerbitzu pertsonalak— hazkunde handia izan dutela, eta enpresentzako zerbitzuen sektoreko enpleguan izandako hazkunde izugarriak ere antzeko ezaugarriak ditu. Bestalde, enpleguan ehunekotan igoerarik handiena izan duen sektorea eraikuntza izan da, eta gaur egungo hazkunde-ereduaren ondorioz daukagun etxebizitzaren eskari handiari erantzunez gertatu da egoera hori.

Era berean, enplegu-tasak⁷ izandako hazkuntza nabarmena aipatu behar dugu (3. adierazlea). Enpleguak izandako hazkundearen ondorioz gertatu da batik bat, baina izendatzailea (biztanleria) EBko batez bestekoa baino gutxiago handitu izanak ere eragina du horretan. Joera horrek bizitasun demografiko txikiagoa dugula salatzen du.

Erreferentziatzat hartutako beste herri eta eskualde batzuen aldean bereizten gaituen ezaugarri bat aipatu dugu orain: Euskal Herriko ekoizpen-egituraren espezializazio handiagoa dugula manufaktura-industrian, teknologia ertain eta altuko sektoreetan, bereziki, goi-teknologiako sektoreetarantz jotzeko nahiarekin. Hala, EB osoan teknologia behe eta ertainetako sektoreetan I+G-n egindako gastu handienetakoa dugu EAEn.

⁶ Kopuru horiek islatzen dituzten eboluzioak onak izan dira, beraz, BPG eta enplegua erritmo handiagoan hazi direla erakusten dutelako. Hala ere, Hegoaldeko biztanleko BPG eta produktibitate-maila Europako batez bestekoa baino zertxobait handiagoak direla erakusten duten datuak askotan aipatzen dira, baina kontuz hartu behar dira datu horiek, EUROSTATEk egindako kalkulu estatistiko ez oso zorrotzetatik atera direlako, eta askotan balio handiegia ematen zaie. Kopuru horiek ez dira eurotan ematen, EAEko datuak Europako batez bestekoa baino txikiagoak diren kasuetan. Aitzitik, herrialde bakoitzeko prezioen arteko aldeak kontuan hartzeko, prezio-mailaren faktore batekin zuzentzen dira. Zertan datza zehazgabetsuna? NUTS2 eremu guztietan, autonomia-erkidegoetan gure kasuan, Estatuari dagokion indizea ematean, hain zuzen, erkidegoen artean eta Estatuaren barruan prezioen artean dauden aldeak kontuan hartu gabe. Erkidego bakoitzari erkidego aberatsenei dagokien prezio-maila erlatiboa, produktibitatea eta biztanleko BPG aplikatuko balitzaie, erosteko ahalmena parekatuta, murritzuta egingo litzateke aldea, eta batez bestekoaren azpiko prezio-mailak dituzten erkidegoen maila handitu egingo litzateke EUROSTATEk gaur egun egiten dituen kalkuluetan.

⁷ Enplegu-tasa = landunak / 16-64 urte bitarteko biztanleria

Euskal Herriko ekonomia eta gizarte garapenerako behategia
Observatorio para el desarrollo socio-económico de Euskal Herria
Observatoire pour le développement économique et social du Pays Basque

Aipatu dugunez, produktibitateak eboluzio kaskarra izan arren, Euskal Herri osoaren emaitza ekonomikoak EBkoak baino hobeak izan dira azken urteotan, eta pentsatzekoa da bi esparruren arteko aldea iraganeko hazkunde-joeren eta eraikuntza-sektorearen une honetako gorakadaren ondorioa dela, gehienbat, eta ez, aldiz, berrikuntzan oinarritutako hazkunde-eredu baterantz aldatzeko prozesu berria bizkortu izanaren ondorioa.

Nolanahi ere, kostu txikiagoetan eta eraikuntzako inbertsioetan oinarritutako hazkunde handiago horrek ezingo du epe ertainean iraun, eta, hortaz, eragile ekonomiko eta sozial publiko nahiz pribatu guztien artean berrikuntzarako ahalmen autonomoa sortu beharra daukagula ikusten da, argi eta garbi.


2.2 BERRIKUNTZAREN ALDEKO POLITIKA PUBLIKOAK

2.2.1 Giza baliabideak

Euskal gizartean, hezkuntza-eredua Europako herrietako batez besteko mailarekin bat egiten ari da azkar-azkar. Goi-mailako ikasketak (lizentziak eta ingeniariak) egiten dituzten biztanleen ehuneko handia nabarmentzen da, 25-64 urte bitarteko biztanleen %34 inguruan baitago kopuru hori Hegoaldean. Ez dugu Iparraldeari buruzko daturik, Akitaniakoak bakarrik, eta han %20,4k dute goi-mailako hezkuntza, Frantzia baino %3k gutxiagok.

Datu txarren artean, Euskal Herrian Lehen Hezkuntza gainditu ez duen biztanle kopuru handienetakoa dugu (%50 Nafarroa Garaian, %50 EAEn eta %36 Akitanian). Alor honetan lehen postuetan dabilzan beste herri batzuetatik oso urruti gaude: Alemanian %17 eta Danimarkan %19,4 bakarrik dira Lehen Hezkuntzako ikasketarik gabekoak, adibidez.

2.5. GRAFIKOA. 25-64 URTE BITARTEKOEN HEZKUNTZA-MAILA
(kopuru osoaren %), 2002 urtean



Iturria: Europar Batzordearen Kohesio Ekonomiko eta Sozialerako III. Txostena.


Euskal biztanleriaren zahartzea arazo izan liteke garai berriek eskatzen duten berritzeko ahalmena oztopatu lezaketelako.

Azken hamarkadan behera egin du Hego Euskal Herriko ikasleen matrikulazioak. EAEn, 1998/99 ikasturtetik 2000/01 ikasturtera goi-mailako ikasketetan matrikulatutako ikasleen kopurua %7 murriztu da. Espainiako Estatuan %2koa izan da murrizketa hori.

2.2.2 I+G-ko inbertsio publiko eta pribatuak

2002an, EBko estatuburuek 2010erako berrikuntza eta garapeneko gastuak BPGren %3ra arte igotzeko konpromisoa hartu zuten (enpresa pribatuek gastu horren bi heren hartu beharko zituzten eta administrazio publikoak gainerako herena). Bartzelonako Helburua izenez ezagutzen den konpromiso hori betetzeko, Euskal Herrian gaur egun I+G-n gastatzen dena bikoiztu egin beharko da, gaur egun BPGren %1,5 ingurukoa baita I+G-ko gastua.

2.6. GRAFIKOA. I+G-KO INBERTSIOA, BPG-REN EHUNEKOTAN (5. adierazlea)



Iturria: EUROSTAT, EUSTAT, INSEE eta Nafarroako Gobernua.

Ikusten denez, 2000tik aurrera Nafarroa Garaiak aurrerapen handia egin du I+G-n, eta BPGren %1,8ra iritsi zen 2004an. EAEn, aldiz, I+G-n gastatutako ehunekoa ez da handitu 2000. urteaz geroztik, eta Bizkaiaren zertxobait murriztu da, gainera, urte horrez geroztik. Iparraldeko gastua EAEkoaren parekoa da.

Euskal Herria Suediaren eta Finlandiaren oso atzetik dago, herrialde horietan 2005ean BPGren %3,86 eta %3,48 gastatu baitzuten I+G-n, hurrenez hurren (5. adierazlea).

Gure ingurune gero eta globalizatuagoan, aldaketa teknologiko handiak gertatzen ari dira, informazio piloa kudeatzen delako informazio-teknologiaren bidez. Ingurune horretatik sortutako erronkak jakintzan oinarritutako paradigma berri bat ekarri digute, eta enpresek, erakundeek eta gizarteak, oro har, paradigma horri erantzun behar diote lehiakortasun-maila handiagoa izango badute.

Hegoaldean lanpostuen %35 inguruk baino ez dute zerikusia jakintza aldetik intentsiboak diren sektoreekin, eta Jakintzan Oinarritutako Ekonomiaren atarian gauden arren, teknologia ertain eta baxuko sektoreetan I+G gasturik handienetakoa duen herria gara Europan. Espainian, Italian eta Frantzian bezalaxe, Euskal Herrian ere gero eta pisu erlatibo handiagoa dauka eduki teknologiko txikiagoa duten sektoreek I+G-n egindako gastuak.

2.7. GRAFIKOA. JAKINTZAREN EKONOMIARAKO BIDEAN**> 40% Economía del Conocimiento**

REGIÓN	% EMPLEO	POSICIÓN
Estocolmo	58,65	(1)
Londres	57,73	(2)
Helsinki	51,50	(11)
Paris	50,17	(16)
South&West-Escocia	47,59	(24)
Dinamarca	47,46	(31)
East-Escocia	47,05	(30)
Gales	43,39	(56)
C. de Madrid	40,42	(82)
South&East-Irlanda	40,18	(86)

< 40% Economía del Conocimiento

REGIÓN	% EMPLEO	POSICIÓN
Gelderland (NL)	39,99	(87)
Väli-Suomi (FI)	39,10	(101)
North&East Escocia	38,09	(106)
Irlanda Norte	37,31	(107)
Euskadi	36,30	(115)
H.&Islands (UK)	34,45	(132)
Cataluña	33,48	(137)
Navarra	32,06	(145)
Calabria	31,29	(151)
Islas Egas (Gr)	12,70	(188)

Fuente: Regiones Eurostat: Yearbook, 2001.

Jakintza zientifiko eta teknologiko berriak dakartzan potentzialak barneratzea eta zabaltzea da, gaur egun, lehiatzeko abantaila izateko, aberastasuna sortzeko eta bizi-kalitatea hobetzeko bitarteko garrantzitsuenetakoa.

Gure ingurune gero eta globalizatuago honetan, lehiakortasuna jakintzan gero eta gehiago oinarritutako produktu eta zerbitzu gero eta konplexuagoak merkaturatzean oinarritzen da gero eta gehiago. Produktuen diferentziazioak bereizten ditu ekonomia garatu eta modernoak hain garatu eta modernoak ez direnetatik, eta azken ekonomia horien lehiatzeko abantaila ekoizpen-kostuetan (eskulanean gehienetan) duten diferentzialera mugatzen da askotan, eta, horrekin batera, diferentzial horrek azken prezioetan dituen ondorioetara.

1.1. IRUDIA. DESLOKALIZAZIO-ARRISKUA

Berrikuntza gidatzen duten ideia berriak leku askotatik datozkigu: zientziatik edo teknologiatik ateratako emaitza berrietatik sortua izan daiteke berrikuntza; bai eta antolakuntza-molde, trebetasun, merkaturatze-eredu edo merkaturako eskariak azaleratzeko formula berrietatik ere.

Berrikuntzan arrakasta izateko osagai horiek guztiak industrien, bezeroen eta berrikuntza-ahaleginak bereganatzeko eta babesteko enpresek darabiltzaten baliabideen ezaugarriak jasotzen dituzten eredu batzuekin uztartu behar dira.

Berrikuntza, azken batean, I+G-n etengabe egindako inbertsioen mende dago, zeharka nahiz zuzenean. Horrekin batera, ekoizpen-ahalmenean, marketinean eta giza baliabideen garapenean ere inbertitu behar da, noski, eta Euskal Herrian bide luzea dugu oraindik.

Unibertsitatea izaten da zientzia eta teknologia alorreko eragile nagusia, eta Hegoaldeko unibertsitateek Espainiako Estatuko unibertsitateek argitaratutako zientzia-artikulu guztien %5,5 argitaratzen dute, ekonomia eta biztanle aldetik duten pisuari dagokiena baino gutxiago, beraz.

Ikerketaren eta berrikuntzaren kulturaz ari garenean, unibertsitateetan edo teknologia-zentroetan errotutako zientzia-komunitateei dagozkien zientzia eta teknologia esparruetatik haratago doazen balioak ditugu gogoan. Kultura horren bidez, halako kontzeptuak gure gizarte-ereduan txertatzeko modua eta gizarte horretako kide bakoitzak kontzeptu horiek barneratzeko modua adierazten da, azken batean⁸.

Ikerketaren alorrean, desoreka handia dago sexuen artean, eta, hortaz, emakumeak zientzia alorreko ikasketetara bideratu beharko lirateke. EAEk kultura teknikorako joera izan du betidanik, eta kultura horri jarraiki, 2001ean, mila biztanleko 12,1 lagunek eginak zituzten zientzia eta teknologia ikasketak, EBko batez bestekoaren antzeko kopurua, beraz. Gizonen artean, milako 15,7ra iristen da kopuru hori, eta emakumeen artean, berriz, milako 8,2ra jaisten da, aipatutako desoreka argi erakutsiz⁹.

⁸ Europar Batzordeak Gizartea-Zientzia izeneko ekintza-plana (2002) du erronka horri erantzuteko. Plan hori Europar Batzordeak 2000ko azaroan abian jarritako Europako Ikerketa Espazioaren barruan txertatzen da eta esparru horri hasiera eman zion "Zientzia, gizartea eta herritarrak Europan" izeneko 2000ko azaroko txostenaren jarraipena da. Horrekin batera, planak ekarpena egin nahi dio Europako gobernantzari buruzko Liburu Zuriari eta Europaren geroari buruzko eztabaidari. Bertan EBko estatuek, eskualde-mailako agintariek, zientzialariek, arduradun politikoez, enpresek eta gizarteko gainerako eragileek egin beharreko 38 ekintza proposatzen dira.

⁹ Ez dugu Nafarroari eta Iparraldeari buruzko daturik.

Euskal Herriko ekonomia eta gizarte garapenerako behategia
Observatorio para el desarrollo socio-económico de Euskal Herria
Observatoire pour le développement économique et social du Pays Basque

2.8. GRAFIKOA. SCI-REN ETA ICYPT-REN SAILKAPENA, AUTONOMIA-ERKIDEGOEN ARABERA

COMUNIDADES AUTÓNOMAS	SCI				ICYPT			
	N. Doc	%	N. Doc SCI/millón habitantes	Ranking	N. Doc	%	N. Doc SCI/millón habitantes	Ranking
Madrid	9.634	28,7	63	1	5.445	33,0	36	1
Cataluña	6.875	20,5	37	3	2.810	17,1	15	5
Andalucía	5.161	15,4	24	9	2.039	12,4	9	12
Valencia	3.452	10,3	29	6	1.462	8,9	12	8
Galicia	2.262	6,7	28	7	855	5,2	10	11
Castilla y León	1.581	4,7	21	13	827	5,0	11	10
Aragón	1.538	4,6	43	2	712	4,3	20	3
Pais Vasco	1.471	4,4	23	12	946	5,7	15	5
Canarias	1.271	3,8	26	8	372	2,3	8	14
Asturias	1.070	3,2	33	4	518	3,1	16	4
Murcia	805	2,4	24	9	493	3,0	15	5
Cantabria	485	1,4	31	5	132	0,8	8	14
Baleares	470	1,4	20	14	136	0,8	6	16
Extremadura	413	1,2	13	16	292	1,8	9	12
Castilla - La Mancha	386	1,2	7	17	273	1,7	5	17
Navarra	381	1,1	24	9	345	2,1	22	2
La Rioja	127	0,4	16	15	97	0,6	12	8
No consta	1	0,0			2	0,0		
TOTAL	37.383				17.756			

Iturria: Madridmasd

2.2.3 Zientzia eta teknologia alorreko eragileak

Europar Batasunak, ondasunekin eta zerbitzuekin gertatzen den antzera, ikerketa eta berrikuntzako "merkatu bateratu" bat eratzeko ahaleginak egiteko erabakia hartu du. Egitura horrek Europako Ikerketa Espazioa (EIE) izena du¹⁰, eta ikerketa-jarduerak hobeto koordinatzeko eta EBko estatuetakoko ikerketa eta berrikuntza politikak bateratzeko, EBn dauden baliabide guztiak biltzen dira hor barruan.

EIE Europako ikerkuntzaren etorkizunerako egitasmoa da, eta zientzia eta teknologiako barne-merkatu bat osatu nahi du, zientziaren kalitatea, lehiakortasuna eta berrikuntza areagotzeko. Horretarako, lankidetzak eta koordinazioa hobea eratuko da maila guztietako interesdunekin.

Europar funtsezko tresna bat daukagu ikerketak finantzatzeko: abiaburuko programa. Europako ikerketa eta garapen teknologikoa egituratzea da programa horren azken helburua. VI. abiaburu-programaren barruan, garrantzi handiko bi tresna sortu dira: proiektu integratuak eta bikaintasun-sareak. Bi tresna horiek oso garrantzitsuak dira. Zergatik? Hiru helburu hauek lortzeko lehentasunezko tresnatzat jotzen direlako: masa kritikoa, kudeaketa errazagoa eta europar balio erantsia. Europar erkidegoko ikerketen bidez helburu horiek lortu behar dira, maila nazionalean egindakoari jarraiki, eta ikerketarako gaitasunak bateratuz.

Europako Ikerketa Espazio horretan, Europako eskualdeek ere berebiziko garrantzia dute, Eskualdeetako Lantaldearen laguntzarekin. Lantalde horrek dioenez, "EBn ikerketara bideratutako programak eskualde-mailako politikekin koordinatu behar dira". Esparru horretan, Euskal Herriak herri bezala jarduteko aukera izan lezake, eta hori Lantaldea osatzen duten eskualdeen borondate politikoaren mende dago bakarrik.


¹⁰ ERA: European Research Area.

Enpresen inbertsioa, BPGren aldean

Europako Kontu Sistemaren arabera (ESA, 1995), hauxe da kapital finkoaren eraketa gordina: herri batean bizi diren ekoizleek egindako erosketak ken aktibo finko iraunkorretatik erabilitakoa, epealdi batean baino gehiagotan, baina ekoizpen-jarduerak edo unitate instituzionalak egindako balio erantsirik ez dutenak. Enpresen inbertsioa, berriz, hauxe da: sektore pribatuak, hots, gobernuaren kenduta ekonomia nazionalako sektore guztiek kapital finkoa eratzeko egindako gastua.

2004an Bizkaiko enpresek egindako inbertsioa, BPGren ehunekotan, EAEko batez bestekoa baino txikiagoa izan zen¹¹, %20,3 eta %24,9, hurrenez hurren, baina EB-25ekoa baino handiagoa, urte horretako BPGren %17,1ekoa izan baitzen inbertsioa Europan (6. adierazlea).

2.9. GRAFIKOA. ENPRESEN INBERTSIOA BPG-REN EHUNEKOTAN (6. adierazlea)



Iturria: EUSTAT eta EUROSTAT.

Balio horren barruan enpresen inbertsio guztiak sartzen dira, higiezinetan egindakoak ere barne. Higiezinaren sektorearen ezaugarriak kontuan izanik, eta enpresa asko sektore horretan inbertitzen ari direla jakinik, gurean kopuru hori EBko batez bestekoaren oso gaineratik dago, eta kontuz ibili behar dugu, beraz, bateko eta besteko datuak alderatuz ondorioak ateratzeko garaian.

¹¹ Ez dugu Nafarroa Garaia eta Iparraldeari buruzko datuak lortu.

3.- GIZARTE-BABESA KOHESIOAREN OINARRIA

3.1 IKUSPEGI OROKORRA

Gizartearen babesak berebiziko garrantzia du Europako gizarte-ereduan. Jendea gizarteko arriskuen aurka babesteko prestatutako transferentzia-sistema kolektibo guztiek osatzen dute babes hori, eta EB-25ek bere BPGren %28 bideratzen du horretara, gaur egun. EBko estatuak dira beren babes-sistemak diseinatu, antolatu eta finantzatzeko ardura duten bakarrak.

Euskal Herriari dagozkion eskumenen banaketa dela eta, alde handiak daude Iparraldearen eta Hegoaldearen artean gizartea babesteko gastuen zentralizazioan. Hegoaldean, gastu sozialaren atal nagusiak (zaharrak, langabeak, ezinduak eta biziraupena), gastu osoaren %70, Espainiako Estatuko administrazioaren eskumenekoak dira, bai gastu horiek legez arautzeari dagokionez, bai gastuak ordaintzeko dirua biltzeari nahiz zerbitzu horiek kudeatzeari dagokienez. Osasun alorra nahiz komunitatearen ongizate soziala (familia eta gizarte-bazterketa) kudeatzeko eta arautzeko, aldiz, autonomia handiagoa dugu.

Gizarte-babesean gastatutako kopuruetan dauden aldeak —EAPn (erosteko ahalmena parekatuta) adieraziak— oso nabarmenak dira Europar Batasunaren barruan. Euskal Herriko gastu soziala Europar Batasunean gastatzen denarekin alderatuz gero, ikusten dugu gurean gastua askoz txikiagoa dela EBko batez bestekoa baino. Hala, 2003an EBk BPGren %28 bideratu zuen gizarte-babesera; **EAEn**, %19,2 eta **Nafarroa Garaian**, %19, Espainiako Estatuko %19,7aren azpitik, beraz. Biztanle bakoitzeko gastuan ere alde nabarmenak daude: EB batez bestekotzat hartuta (=100), Hegoaldeko gastua %72 ingurukoa izan zen. **Iparraldean**, aldiz, gastu soziala, BPGren ehunekotan, Frantziako batez bestekoa baino zertxobait handiagoa da, %31 ingurukoa.

Hazkunde ekonomikoa, prestakuntza, gizarte-babesa eta gizarte-kohesioa dira europar gizarte-ereduaren zutabe nagusiak, eta gerora begira politika ekonomikoaren, enpleguaren eta politika sozialaren arteko orekari eta elkarrekintzari eusteko beharra izango da EBren filosofia eta bereizgarri nagusienetakoa.

Hala, 2000ko martxoan Lisboan egindako Europar Kontseiluak dei bat luzatu zien EBko kideei eta Batzordeari, gehienez ere 2010erako pobrezia ezabatzeko helburua lortzearren neurri eraginkorrak hartu zituzten. Horrekin batera, EBko estatuek pobrezia eta gizarte-bazterketaren aurka bultzatzen dituzten politikak koordinatzea erabaki zen, helburu bateratuak, ekintzarako plan nazionalak eta adierazle komunak uztartzen dituen koordinazio-metodo ireki bat erabiliz, guztia ere gizarte-inklusioan estrategia politiko eraginkorrak bultzatzearren.

Bestalde, Amsterdamgo eta Nizako itunen arabera, haxe izango da **eskualde-komunitateen egitekoa**: "EBko estatuen jarduna lagundu eta osatzea" esparru jakin batzuetan, hala nola "gizarte-segurantzaren eta langileen gizarte-babesean", "gizarte-bazterketaren aurkako borrokan" eta "gizarte-babeserako sistemen modernizazioan". Sistema guztiek antzeko erronkak dituztela onartzen duten denek (adibidez, biztanleen zahartzea, pobrezia iraupena eta gero eta desoreka handiagoak egoteko arriskua; gizartearen, familien eta lan-munduen egituretan egondako aldaketak; enplegua sortzen eta ugaritzen laguntzea; etxebizitza izateko eskubidea), eta erronka horiei erantzuteko sistema horiek egokitu eta modernizatu beharra dagoela.

Geroago, The High Level Group izeneko aditu-taldeak bost jarraibide zehaztu zizkion Europar Batzordeari, 2006-2010 bitartean enpleguaren eta gizarte-politikaren alorretan eragiteko, biztanle gero eta zaharragoak eta globalizazio gero eta hedatuagoa dugun giro honetan. Hauek dira bost jarraibide horiek:


- Lan-bizialdia luzeagoa eta langileen etengabeko ikaskuntza bultzatzen duen enplegu-estrategia bat
- Gizarte-babeseko sistemak aldatzea
- Gizarte-inklusioa bultzatzea
- Europako bikoteei nahi beste ume izateko aukera ematea
- Europarako immigrazio-politika bat garatzea

3.2 ENPLEGUA GIZARTE-INTEGRAZIO-OSAGAI NAGUSIA

1 Enplegu-maila

Enplegu-maila Lisboako helburuetatik **urruti** dago oraindik. Euskal Herriko enplegu-tasa orokorra Iparraldeko %62,6 eta Nafarroa Garaiko %69,1 bitartean zegoen 2005ean. 2000. urteaz geroztik, hazkunde orokorra egon den arren, Bizkaiak %54,1etik %62,7ra egindako jauzia nabarmenduz, Nafarroa Garaian baino ez da lortu Lisboan 2005erako finkatutako tarteko helburura —%67ra— iristea. Enpleguak oraingo erritmoan hazten jarraituz gero, nahiz eta zaila dirudien enplegu-sorkuntza motelduta dagoelako gaur egun, EAEk eta Nafarroa Garaiak Lisboako Estrategiaren barruan 2010erako finkatutako %70eko helburua lortu lezakete.

3.1. GRAFIKOA. ENPLEGU-TASA OROKORRA (3.1. adierazlea)




Iturria: EUROSTAT, EUSTAT, INE, INSEE, Nafarroako Gobernua eta Gaindegia

Helburu hori lortzetik oso urruti dabil Iparralde, horixe izan baita azken urteotan Euskal Herrian enplegu-tasa gutxien handitu den lurraldea, 2001eko %61,1etik %62,6ra igo baitzen 2005ean. Frantziako Estatuan baino handiagoa izan da hazkunde hori, dena den, 2000. hamarkadan zehar lan-merkatua ez atzera ez aurrera egon baita han (3.1 adierazlea).

Lisboan, **emakumezkoen enplegu-tasa** 2005erako %57koa izatea finkatu zen helburu bezala, eta Iparraldeak eta Nafarroa Garaiak lortu dute helburu hori. Gainera, orain arteko joerarekin jarraituz gero, 2010erako %60ko helburua Euskal Herriko lurralde guztietan lortu liteke. Bizkaia da helburu horretatik urrutien dagoena, baina emakumezkoen enplegu-tasak hantxe izan du hazkunderik handiena: 2000ko %39,3tik %52,2ra 2005ean (3.2 adierazlea). Azken hamarkadan, emakumezkoen enplegu-tasa batez besteko tasa baino bizkorrago handitu da Hegoaldean, eta egiturazko atzerapena asko murriztu da horri esker. Iparraldean, XX. mendeko bigarren erdian askoz emakume gehiago sartu ziren lan-merkatuan Hegoaldean baino, eta hazkunde hori ez da, beraz, hain handia izan. Halere, gizonezkoen enplegu-tasak egonkor jarraitzen du han, eta emakumeena hazten ari da oraindik.

3.2 GRAFIKOA. EMAKUMEZKOEN ENPLEGU-TASA (3.2. adierazlea)




Iturria: EUROSTAT, EUSTAT, INE, INSEE, Nafarroako Gobernua

Nolanahi ere, emakumeek langabezia jasateko askoz arrisku handiagoa dute gizonek baino, Europar Kontseiluak udaberrian gizon-emakumeen tratuari buruz argitaratutako txostenean azaldu zenez. Gainera, lan-merkatuko sexu-bereizkeria eta soldaten arteko aldea, bereziki, oso gutxi murriztu dira azken urteotan.

Gizonezkoen enplegu-tasari dagokionez, 2005ean Hegoalde EB-25eko batez bestekoaren gainetik zegoen, eta Iparralde, berriz, kopuru horretatik gertu (3.3 adierazlea). Bestalde, Nafarroa Garaiak EHko enplegu-tasarik handiena du (%79,4), baina badirudi gailurra jo duela, 2000. urteaz geroztik ez duelako aldaketarik izan. Orain indarrak emakumezkoen enplegu-tasaren hazkundera ari dira jartzen. Joera bera ikusten da Iparraldean, 2005eko gizonezkoen enplegu-tasa 2000koaren antzekoa izan baitzen (%68,3).

3.3. GRAFIKOA. GIZONEZKOEN ENPLEGU-TASA (3.3. adierazlea)




Iturria: EUROSTAT, EUSTAT, INE, INSEE, Nafarroako Gobernua

55-64 urte bitarteko langileen enplegu-tasa (4.1 adierazlea) Hegoalde osoan EB-25ekoaren antzekoa da, Iparralde eta Bizkaia izanik tasa txikiena dutenak. Bizkaiaren eta EHko gainerako lurraldeen arteko aldea industria-birmoldaketako politikari eta erretiro aurreratuei zor zaie, ziurrenik, politika horiek Bizkaiaren antzeko eraginik handiena.

Lisboako Estrategiaren barruan %50ean finkatu zen adin-tarte horretako helburua 2010erako, baina nekez lortuko dute hori Euskal Herriak nahiz EBk.

3.4. GRAFIKOA. ZAHARRAGOEN (55-64 URTE) ENPLEGU-TASA, GUZTIRA (4.1 adierazlea)



Iturria: EUROSTAT, EUSTAT, INE, INSEE, Nafarroako Gobernua

Bestalde, azken adierazle horren balioa lan-merkatua uzteko batez besteko adinarekin batera aztertu beharra dago, erretiratzeko adina ez baita berdina EBko herrietan eta Hegoaldean eta Iparraldean. Gainera, Hegoaldean, adin-tarte horretako emakumezkoen enplegu-tasa gizonezkoen erdia da, Hegoaldean emakumeak azken bi hamarkadetan murgildu direlako lan-merkatuan, eta gehienak ere belaunaldi gazteetako emakumeak ziren.


Azkenik, enplegu alorrean lurraldeen artean dauden alde handietan eragina du gutxieneko soldatak ere. 2005ean, lanbide arteko gutxieneko soldata, erosteko ahalmena parekatuta, 696€ zen Hegoaldean eta 1.194€ Iparraldean.

2 Langabeziaren diagnostikoa

Azken hamarkadan, **aldaketa kualitatiboak** egon dira langabeziaren arazoan. Garai batean, gizarteko geruza eta lanbide guztietan oso hedatuta egon zen, baina gaur egun oso gertakari murritza da (2004an, %5,5 Nafarroa Garaian eta %10,5 Iparraldean), eta adin eta sexu jakin batzuei lotutako arazoa bihurtu da, gehienbat.

Nabarmentzekoa da Bizkaiak izandako eboluzioa: 1990eko hamarkadan %25era arteko langabezia-tasak izan ondoren, 2004an %8,5ekoa zen.

3.5. GRAFIKOA. LANGABEZIA-TASA, 2004AN



Nafarroa Garaiko datuak 2005ekoak dira

Iturria: EUROSTAT, EUSTAT, INE, INSEE, Nafarroako Gobernua

Langabeziak hiru talde estrategiko jotzen ditu bereziki: emakumeak (Nafarroa Garaiko %7,5 eta Iparraldeko %13,3 artean, 2004an), 24 urtetik beherako gazteak (oraindik ere %200etik gorakoa baita Euskal Herri osoan) eta iraupen luzeko langabeak (EAEko %2,9tik Iparraldeko %4ra bitartean, 2004an). Gainera, lan-merkatuan arazoak dituzten talde berriak sortzen ari dira, hala nola etorkinak (gero eta

eragin handiagoa izango dutenak enplegu-mailan, bai kopuru aldetik, bai kualitatiboki) eta jardunik gabeak (emakumezkoak bereziki). Talde horiek enplegura bideratzea garrantzi handiko erronka dugu.

3.3 Lan-merkatuaren inguruko alderdi garrantzitsuak

Lan-merkatuari buruzko datuek erakusten dutenez, **oraindik alde handiak daude gizon eta emakumeen artean**, nahiz eta desoreka horietako batzuk motelduz eta jardueren eta langabeziaren inguruko adierazleak bateratuz joan. Halere, bide luzea dugu oraindik beste zenbait alorretan, batez besteko lanaldian eta soldatetan dagoen bereizkerian, esaterako, alderdi horien ondorioz, emakumeek parte-hartze txikiagoa baitute soldata-errenten kopuru orokorretan. Lan-merkatuan dauden alde horiek eragin handia dute beste bi alorretan ere: gizonek etxeko lanak zenbateraino egiten dituzten eta etxeko eta laneko munduak uztartzeko aukerak.

Lanaldi partzialeko enpleguaren pisua handitu egin da¹². 2004an zertxobait handitu zen lanaldi partzialeko enplegu hori, %7,5eraino iritsiz. Era horretako enpleguan emakumeak aritzen dira gehienbat: emakumeen %15,2k lanaldi partzialean dihardute eta gizonezkoetan %2,0k bakarrik. Lanaldi hori zerbitzuetan erabiltzen da batik bat, lanpostu guztien %11,3rekin. Industrian, aldiz, %1,2koa da lanaldi horren pisua. Lanaldi horren hedadura handitzearen ondorioz, batez besteko asteko lanaldia 37 orutara murriztu da lehenbiziko aldiz. Gizonek 38,5 ordu egiten dituzte astean, batez beste, eta emakumeek 34,5.

Kontratu asko aldi baterako dira bakarrik, eta horretan ere sexuen arabera banaketa argia dago. Emakumeen enplegua hedatzearekin batera, lanaldi partzialeko kontratuak ugaritu dira baina, aldi berean, murriztu egin da kontratu mugagabe berrien kopurua. 2004an sinatutako ehun kontratutik %3,9 bakarrik izan ziren mugagabeak. Gainera, egindako kontratu mugagabe horietatik erdia lanaldi partzialekoak izan ziren.

Euskal Herriko lan-merkatuaren ezaugarri txarrenetakoa aldi baterako lan-kontratuekin diharduten langileen kopuru handia dugu. Gainera, azken urteotan ez da batere aldatu kopuru hori. Hala, 1998an soldatapeko guztien %28,4ek aldi baterako kontratu bat zuten, eta %6,3k batere kontraturik ez. Gaur egun, kontratazio-modalitateak aldatzearekin batera kontratazio finkoa malgutu egin da, baina egoera ez da ia batere aldatu. EUSTATen 2004ko datuen arabera, soldatapekoen %27k aldi baterako kontratua zuten eta %4,6 kontratu gabe ari ziren lanean.

Kopuru absolutuetan, 197.700 aldi baterako soldatapeko eta 33.700 kontratu gabeko soldatapeko zeuden. Azken horietatik, 29.400 emakumezkoak ziren. Aldi baterako kontratuak adinen arabera aztertuz gero, halako kontratuak gehienbat gazteen artean egiten direla ikusten dugu.

2004an 15.200 enplegu garbi sortu ziren, guztira 764.498 kontratu sinatu ziren arren. Hortaz, bi egoera hauek nagusitzen direla ikusten dugu: lanpostu bakoitzean pertsona desberdinak aritzea, urtean zehar bolada laburretan jardunez lanean, langabezia eta aldi baterako lanpostuak txandakatuz; edo pertsona bera lanpostu berean aritzea, baina hurrenez hurreneko kontratu mugatuak sinatuz. Kontratuen batez besteko iraupena labur samarra da, eta kontratu motarik arruntena (kontratuen %70) "ekoizpen-beharretarako aldi baterako kontratua" da. Kontratu horrek bi hilabetetik beherako iraupena du, batez beste, eta gehien hedatuta dagoen hurrengoak, "bitarteko kontratuak", hilabetekoa. Iraupen laburra izateaz gain eta, batzuetan horrexegatik, kontratu horiek beste ezaugarri txar batzuk dituzte: lan bera eginez lanpostu egonkorretan dihardutenek baino soldata txikiagoa, laneko arrisku gehiago, trebatzeko interes gutxi, karrera profesionala egiteko ezintasuna, sindikatuetan aritzeko ezintasuna, etab. Horregatik, kalitate apaleko lanpostutzat jo daitezke horrelakoak, eta kalitate apal horrek produktibitate txikia dakar berekin.

Laneko ezegonkortasun horrek gazteengan du eraginik handiena, eta oso ondorio txarrak dakartza. Gazteei beren bizi-proiektu propioa izatea galarazten die, askotan, hots, gurasoen etxetik joatea eta beren familia osatzea¹³. Era berean, egoera horretan oso zaila da jakintzan oinarritutako lehiakortasuna sustatzea enpresetan, hain kontratu laburrak izanik langileek nekez izango dutelako lanerako trebatzeko interesik, eta enpresaburuek ere ez.

¹² EAEko datuak dira, ez dugu Nafarroa Garaia eta Iparraldeari buruzko datu zehatzik.

¹³ Jaiotza-tasa hain txikia izatea ere horren ondorioa izango da, ziurrenik.

Alor honetan Europako batez bestekotik oso urruti gaude, lan aldi baterako kontratua duten soldatapekoen kopurua gure herrian dugunaren herena baita. EBko Estatuetako Enplegu Politiketarako Jarraibideak izeneko txostenean¹⁴ haxe esaten da gai horren inguruan: “*malgutasunaren eta segurtasunaren artean oreka bidezkoa*” lortzeak lagundu egingo du enpresen lehiakortasuna eta lanaren produktibitatea areagotzen, lanaren kalitatea eta produktibitatea hobetzen eta enpresak eta langileak ekonomiaren aldaketetara egokitzen.

Sexuen arabera soldatetan dauden aldeek bere horretan jarraitzen dute. Soldaten artean alde nabarmenak daude, eta eskala profesionalean eta laneko egoeran dauden posizio desberdinak islatzen dute alde horiek. Eskueran ditugun datuen arabera¹⁵, Hegoaldean 1997an (laugarren hiruilekoan) emakumeek gizonen %75,7 irabazten zuten lan egindako ordu bakoitzeko. 2000an, zertxobait gutxiago irabazten zuten emakumeek: %74,1. Hortaz, kuantitatiboki, emakumeen egoera ez da batere aldatu denbora-tarte horretan. Gai horri buruzko azterketa batean¹⁶ honela definitzen da *soldaten arteko aldea*: gizonen eta emakumeen batez besteko soldaten artean ehunekotan dagoen aldea. Soldaten arteko alde hori zatikatu egin daiteke: a) *ezaugarri berdinak izanik, soldaten artean dagoen aldea* (soldaten bidezko bereizkeria) eta b) *ezaugarri desberdinak izanik, soldaten artean dagoen aldea*, hots, hainbat aldagaien ondorioz (kontratu mota, sektoreko hitzarmena, esperientzia, enpresaren tamaina, jarduera-sektorea, etab.) dagoen aldea. Azterketaren egileek 1995eko datuak aztertu zituzten, eta orduan 26 puntukoa zen soldaten arteko aldea Hegoaldean, eta ezaugarri berdinak izanik, berriz, 16 puntukoa. Goiko definizioa aztertuta, eta emakumeen lanpostu berrien ezaugarriak ikusita (gehienak zerbitzuetan, aldi baterako kontratuak oso ugariak izanik eta lanaldia txikiagoa), gizon-emakumeen soldaten arteko aldea handitzen ari dela ondorioztatu dugu, bigarren aldagaiari dagokionez bereziki.

Lurraldeen arabera aldeen bere horretan jarraitzen dute. Lan-merkatuko datuak lurraldearen barruko kohesioan lortutako aurrerapena neurtzeko balio dute, halaber. Eskualdeak hartzen baditugu oinarritzat, lurraldeen arabera aldeen oso motel zuzentzen direla ikusten dugu. Lan Merkatuaren Erroldaren arabera, hauek ziren enplegu-tasa txikiena zuten eskualdeak, 1997an, EAE: Ezkerraldea (%44,4), Bilbo (%47,7) eta Eskuinaldea (%48,4). Tasa handienak, berriz, Gasteizen (%58,6) eta Debagoienan (%57,5) zituzten. Sei urte geroago, 2003an, egoera orokorra izugarri hobetu da, baina bere horretan jarraitzen dute eskualdeen arteko aldeen, eta zenbait eskualdetan egoera 2002koa bano okerragoa izateko arriskua dago. Lehengo eskualde berberak dute enplegu-tasa txikiena, Ezkerraldea (%58,0), Eskuinaldea (%58,6) eta Bilbok (%60,3), hain zuzen ere, eta 1997ko eskualde berberak dira enplegu-tasa handiena dutenak: Debagoiena (%70,9, hemen hazi da gehien enplegu-tasa, 2002an %68,9koa baitzen) eta Gasteiz (%69,1).

Langabezia-tasa aztertuz gero ere alde berdina aurkitzen dugu, eskualde berberetan. 2003an, eskualdeen arteko aldea oso nabarmena zen oraindik: Eskuinaldean %13,0koa zen langabezia, Ezkerraldean %11,6koa eta Bilbon %10,8koa, horiek izanik tasa handiena zutenak (aurreneko bi eskualdeen tasa handitu egin da, gainera, 2002ko datuen aldean). Beste muturrean Debagoiena daukagu, %4,4ko langabezia-tasarekin (%5,6, 2002an).

Iparraldeko tasarik handienak, %10etik gorakoak, Donibane Lohitzunen, Ezpeletan eta Aturrialdean dituzte, eta Nafarroa Garaian, berriz, Iruñerrian.

Enplegu-tasetan eta langabezia-tasetan elkarren ondoko eskualdeen artean dagoen alde handiak erakusten digu lan-merkatuak estankatu samarrak daudela, nahiz eta errolden arabera, gero eta mugimendu handiagoa egon eskualdeen artean eta gero eta gutxiago izan eskualde berean bizi eta lan egiten dutenak.

Hegoaldean, langabeziara zuzendutako babes ekonomikoa EB-15ekoa baino 20 puntu txikiagoa da. Erostea ahalmena parekatuta, Europar Batasuneko batez bestekoa baino %80 gutxiago gastatzen da biztanle bakoitzeko.

¹⁴ EBko estatuen enplegu-politikei buruzko jarraibideak, Kontseiluak 2003ko uztailaren 22an hartutako erabakia.

¹⁵ INEren “Encuesta de Salarios” zeharretik atera ditugu datu hauek. 2001ean aldatu egin zen inkesta egiteko modua, eta “Costes laborales” izena du orain. Emakumeek lan-merkatuan duten egoeraren eboluzioa ezagutzeko funtsezkoa zen datu hori ez dute jasotzen diseinu berrian.

¹⁶ Ricardo Aláez Allerek eta Miren Ullibarri Arcek egindako ikerketa. *Discriminación salarial por sexo: un análisis del sector privado y sus diferencias regionales en España*. 1999. Nafarroako Unibertsitate Publikoak argitaratua. Espainiako Lan eta Gizarte Gaietarako Ministerioko Emakume Arloak datu horiek jaso zituen.


Euskal Herriko ekonomia eta gizarte garapenerako behategia
Observatorio para el desarrollo socio-económico de Euskal Herria
Observatoire pour le développement économique et social du Pays Basque

3.4 GIZARTE-INKLUSIOA BULTZATZEN

Lisboako Estrategiaren baitan, pobrezia eta gizarte-bazterketaren aurka borrokatzeko plan estrategiko eraginkorrak garatu beharra azpimarratzen da, EBko estatu guztiek onartutako helburu komunak lortzearen.

Eta ezegonkortasun ekonomikoa da, hain zuzen ere, pobrezia eta gizarte-bazterketa eragiten dituen. Euskal Herrian Iparraldeko %13,2tik Bizkaiko %21,2ra bitartekoa da arazo hori (9.1 adierazlea). Pobrezian murgiltzeko arriskua oso handia da oraindik. Pobrezia definizioak asko dira, baina alderaketak egiteko Europar Batzordeko zerbitzuek arriskuan murgiltzeko pobrezia buruz emandakoa hartuko dugu: herri bateko errenta ertainaren %60tik behera bizi diren pertsonen kopurua¹⁷.

3.6. GRAFIKOA. POBREZIAN MURGILTZEKO ARRISKU-TASA, TRANSFERENTZIA SOZIALAK EGIN ETA GERO (9.1 adierazlea)¹⁸



Iturria: EUROSTAT, INE, INSEE, Eusko Jaurlaritzako Justizia, Lan eta Gizarte Segurantzza Saila, Cáritas.

Eusko Jaurlaritzako Justizia, Lan eta Gizarte Segurantzza Sailak Pobrezia eta Gizarte Desorekei buruz 2004an egindako azken Inkestaren arabera, EAEn 45.804 etxebizitza eta 110.000 lagun bizi dira pobrezia handian, EAEko biztanleriaren %5,2 alegia. Bestalde, inkesta berari jarraiki, 412.963 lagun, biztanleriaren %20 inguru, lortutako ongizatea galtzeko arriskuan bizi dira.

2000ko emaitzekin alderatuta, zertxobait handitu da muturreko pobrezia bizi dutenen kopurua.

Pobrezian murgiltzeko arriskuak ezaugarri hauek dituzten familiako buruak (etxean pisu handiena duenak) dituzten etxeetan izaten du eraginik handiena: pertsona bakarra; guraso bakarra izanik adin txikiko seme-alabak dituen bere ardurapean; eta emakumeak eta etorkinak, gehienbat. Erroldako azken datuen arabera, pobrezia-arriskua handitzen ari da ez atzerititik etorritakoen artean bakarrik, lehenago ikusi dugunez, baizik eta pertsona bakarreko etxeetan (%20) eta guraso bakarreko familietan ere (%10).


Errenta kontzentratzen ari da, eta gero eta jende gehiago dago errenta txikiaren tarteetan. Hala, INEren arabera, 2004an EAEko batez besteko errenta 25.501€-koa zen, eta urte berean, etxebizitzaren %55,5 pertsona bakar bati dagokion batez besteko errentaren azpitik bizi ziren. Nafarroa Garaia da errentak ongien banatuta dituen herrialdea. Hala, INEren arabera, 2004an Nafarroan familien %47,9 zegoen 25.000 €-eko kopuru horren azpian.

Bizkaian errentaren kontzentrazioa handiagoa da EAEn baino. 2004an argitaratutako Pobrezia eta Gizarte Desorekei buruzko Txostenaren ondorioetan azpimarratzen da hori, eta pobrezia Bilbon duen eragina nabarmenagoa da bertan, 2004an EAEn pobrezia gehien duen esparrua izateaz gain, Euskal Herriko gainerako eskualdeetan baino askoz eragin handiagoa duelako arazo horrek.

¹⁷ Zer da errenta ertaina? Errenta-maila pertsonalen arabera antolatutako eskalaren erdi-erdian dagoen pertsonak jasotzen duen errenta.

¹⁸ Iparraldeko datuak 2003koak dira, EB-25ekoak bezalaxe. Azken horiek behin-behinekoak dira, halere.

3.7. GRAFIKOA




Iturria: Eusko Jaurlaritzako Justizia, Lan eta Gizarte Segurantzza Saila

Bilbok Euskal Herriko pobreziaren mapan duen garrantzia are larriagoa da hiri horren pisu demografikoa kontuan hartuz gero. Izan ere, EAEn pobrezian murgiltzeko (jarraitzeko edo areagotzeko) arriskuan dauden pertsona guztien %37,4 eskualde-udalerrri horretan bizi da.

Gaur egun, pobrezia hiri-eremuetan pilatzen da batik bat, baina egoera hori ez da Bilboko udalerrian agertzen bakarrik. Izan ere, Ezkerraldea eta Eskuinaldea gehituz gero, Bilboaldean daude EAE osoko pobrezia-egoeren %61,1.


Nafarroa Garaian %17,7koa da pobrezia-tasa. Bera da, beraz, Bizkaia eta gero pobreziarik gehien duen bigarren herrialdea, EAEn baino enplegu-tasa handiagoa izan arren. Horren zergatia, Nafarroan etorkin gehiago egotea izan liteke, haien lan-baldintzak (ezegonkortasun handiagoa eta soldata txikiagoa) kaskarragoak baitira gainerako biztanleenak baino.

Iparraldean, bestalde, gizarte-babesa garatuago dago, 2003an Frantziak BPGren %30,9 bideratu baitzuen gizarte-babeseko gastuetara (erosteko ahalmena parekatuta-EAP, biztanleko 7.434€ urtean); EAEk, berriz, BPGren %19,2 (EAP, biztanleko 5.194€ urtean); Nafarroa Garaiak %19 (EAP, biztanleko 4.690€ urtean); eta EB-25ek BPGren %28 (biztanleko 6.012 € urtean).

3.8. GRAFIKOA. GASTU SOZIALA, BPG-REN EHUNEKOTAN, 2003AN

Iturria: EUROSTAT, EUSTAT, INE, INSEE

EAEn barruan, gizarte-babeserako gastuaren %55 Bizkaian erabili zen, %32 Gipuzkoan eta gainerako %13 Araban.

3.9. GRAFIKOA. GASTU SOZIALA BIZTANLEKO, EROSTEKO AHALMENA PAREKATUTA


Iturria: EUROSTAT, EUSTAT, INE, INSEE

Pobrezian murgiltzeko arriskuaren eboluzioak lan-merkatuaren eta, batik bat, iraupen luzeko langabeziaren eboluzioarekin du zerikusia. Lanean inor ez dutela dioten etxebizitza kopuruarekin ere erlazioa du horrek. Bi adierazle horiek oso eboluzio ona izan dute joan deneko bost urtean.

Iraupen luzeko langabezia-tasa¹⁹ atzera egin du Bizkaian, 2000ko %8,6tik %2,5era 2005ean, eta EAEn tasa hori %6,5etik %2,0ra jaitsi da denbora-tarte berean. Hala, EAEk, Euskal Herriko tasarik handiena duen eremuak, EBko batez bestekoarekin bat egin ez ezik, gaintu ere egin du batez besteko hori, 2004an EB-25eko tasa %4,0koa baitzen. Nafarroa Garaiak EBko batez bestekoa baino egoera hobea zuen hasieratik, eta ondorioz bertan oso gutxi murriztu da adierazle hau. Iparraldean, berriz, aurkakoa gertatu da, Frantzia bezala, handitzen ari baita iraupen luzeko langabezia (11.1 adierazlea).

¹⁹ Gutxienez azken 24 hilabeteetan langabezian egondako langileak.

3.10. GRAFIKOA. IRAUPEN LUZEKO LANGABEZIA-TASA (11.1 adierazlea)




Iturria: EUROSTAT, EUSTAT, INE, INSEE

Hegoaldean (ez dugu sexuen araberako daturik Iparraldeari buruz) emakumezkoen iraupen luze langabezia-tasa okerreagoa da, baina eboluzio izugarri ona izan du, 2000ko %13,2tik %2,7ra murriztu baitzen 2005erako, eta EAEn ere asko murriztu da tarte berean: %10,3tik %2,5era. Nafarroa Garaiak EAEk baino tasa hobea zuen hamarkada hasieran, eta ez du halako aldaketa handirik izan tarte honetan, baina 2004an EB-25eko batez bestekoaren azpitik zegoen zertxobait (%4,4 eta %4,6, hurrenez hurren) (11.2 adierazlea).

Bestalde, lanean batere kiderik ez zutela zioten EAEko familien kopurua 1997ko 43.200tik 12.000ra murriztu zen 2005ean, baina 12.000 horietatik 8.700 Bizkaian zeuden (kopuru osoaren %70). Hortaz, Bizkaian pobrezian murgiltzeko arrisku handiagoa dutela ikusten dugu berriro ere. Bestalde, 2005ean 29.000 langile zeuden EAEn kontraturik gabe, eta horietatik 17.400ek (%60ek) Bizkaian egiten zuten lan.

3.11. GRAFIKOA. EMAKUMEZKOEN IRAUPEN LUZEKO LANGABEZIA-TASA (11.2 adierazlea)



Iturria: EUROSTAT, EUSTAT, INE, INSEE

3.5 HEZKUNTZA JASOTZEKO AUKERAK

3.5.1 Lisboako Estrategiaren helburuak

Europar Batasunak garrantzi handia ematen dio hezkuntza eskuratzeko aukerari, gizarte-bazterketa saihesten, baztertuta gelditzeko arriskuak murrizten eta jendea gizarte zibilean txertatzen eta lan-munduratzeko laguntzen duen tresna eta oinarritzeko eskubidea den aldetik. Era berean, ikusten da hezkuntza arautua ez dela pertsonen bizitzako une jakin batean bakarrik gertatzen den zerbait, baizik eta **etengabeko ikaskuntzaren** barruan ulertu beharreko zerbait. Etengabeko ikaskuntza horren barruan hezkuntza arautu eta ez-arautuko aukera guztiak sartzen dira.

Hezkuntzak alor ugari biltzen dituen arren, ez gara guztiz jabetzen gizarte-bazterketaren aurka borrokatzeak duen garrantziaz, eta ez zaie ikuspegi estrategikoa ematen ez etengabeko ikaskuntzari ez gizarte-bazterketari. Zergatik? Hein batean hezkuntza lan-munduratzeko bitarteko bezala ikusten delako, gehienbat, gizarte zibilean txertatzeko duen garrantziaz guztiz jabetu gabe, jakintzaren gizarteak eta herritartasun aktiboak gero eta garrantzi handiagoa duten garaiotan, zer esanik ez. Orokorrean, ikaskuntzan lortutako aurrerapenen eta gure bizitzako beste alor batzuen artean (osasuna, ingurumena, familia eta komunitateko gorabeherak) dauden erlazioak ez dira behar bezala irudikatzen.

Lisboako Estrategiaren barruan helburu hauek finkatu dira:

- Eskola behar baino lehenago uzteko arazoa konpontzen saiatzea: arazo horri aurre hartzeari garrantzi handia ematen zaio, eta, horregatik, eskolaren kudeaketa eta eskolako prozedurak ikuspegi sozial eta interkulturaletik hobetzea proposatzen da, horrekin batera, eskola uzteko arriskua duten gazteei banan-banako laguntza egokiagoa emanez. Irakaskuntza orokorrarekin eta lan-munduko irakaskuntzarekin lotura estuagoak eratu beharra azpimarratzen da, oro har, eta hezkuntza-sistema orokorrera itzultzerik ez dutenentzat lan-programak eta ikaskuntza uztartzea da proposatzen dena.

Aditu Batzordearen arabera, Europar Batasunean eskola behar baino lehenago uzten duten gazteen kopurua 1990eko hamarkadakoaren antzekoa da gaur egun (%18,8). Hamarkadaren hasieran kopuru hori zertxobait murriztu zen, baina 1995ean aldatu egin zen joera, eta larriagotzen ari da orain.

Hegoaldean, azken urteotan, murrizten ari da eskola-porrota, eta eskola Bigarren Hezkuntzako graduatutitulua eskuratu gabe uzten duten ikasleak %18 dira. Lisboako Estrategian kopuru hori %10ean finkatu zen.

EBn sartu berri diren herrietan, 18-24 urte bitarteko gazteen %8,4ek bakarrik uzten dute eskola Bigarren Hezkuntzako behe-zikloa bakarrik amaituta. Hortaz, herri horien esperientzia lagungarria izan liteke alor honetan ekintza berri eta berritzaileak bultzatzeko garaian.

Badirudi ikaskuntza-aukera gehienak lan-munduratzeko laguntzeko neurrietan oinarritzen direla, batik bat. Biztanle baztertu gehienek lan egiten ez dutenez, etengabeko ikaskuntzako aukerak bizitzarako gaitasunak, bizirauteko gaitasunak, herritar aktiboak izateko gaitasunak eta gaitasun sozialak irakastera ere zabaldu beharko lirateke. Askoz arreta gutxiago ematen zaio jarduera ordaindurik egiten ez duten pertsonak —lan-merkaturako “ez-landun”-tzat edo “jarduerarik gabeko”-tzat jotzen direnak, alegia— gizarteratzen laguntzeari, emakumeak izanik egoera horretan dauden gehienak.

Batzordearen COM (203)685f komunikazioak ondorengo adierazleak garatzen ditu, Lisboako Estrategia ebaluatzeko funtsezko adierazletzat hartuaz:

1-Eskola behar baino lehenago utzitakoak: Bigarren Hezkuntzako lehen zikloa bakarrik eginda, ikasketekin jarraitzen ez duten 18-24 urte bitarteko biztanleak.

2-Matematika, zientzia eta teknologiako tituludunak: Unibertsitateko tituludun guztietatik matematika, zientzia eta teknologiako unibertsitate-ikasketak egin dituztenak (INSN-Irakaskuntzaren Nazioarteko Sailkapen Normalizatuko 5A, 5B eta 6).

Eskueran ditugun datuen arabera, Lisboako helburua lortzeko, 2010a baino lehen, matematika, zientzia eta teknologiako 80.000 tituludun gehiago beharko ditugu urtero.

Unibertsitate-mailako matematika, zientzia eta teknologia ikasketetan matrikulatuta dauden kopuruak aztertuz gero, Europako erreferentzia-mailei buruz Kontseiluak emandako Ondorioan azpimarratzen den

moduan, desoreka handia ikusten da gizon eta emakumeen artean, eta kontuan hartu beharreko arazo larria da hori (Irlanda da ikasketa horietan %20tik gora emakume dituen herri bakarra).

3-Bigarren Hezkuntzako goi-zikloa amaitutakoak: Gutxienez Bigarren Hezkuntzako goi-zikloa amaitu duten 22 urtetik gorako pertsonen kopurua (INSN 3).

Lisboan helburu hau finkatu zen: 2010erako, 22 urtetik gorako %85ek gutxienez Bigarren Hezkuntzako goi-zikloa amaitua izatea. Datuek erakusten dutenez, erronka handia izango da hori EBko estatuentzat, EB-25eko batez besteko kopurua %77,3 baitzen 2005ean.

EBn sartu berri diren herrietan, Bigarren Hezkuntzako goi-zikloa amaitu dutenak %90,1 dira, hots, Batasunerako 2010erako finkatutako helburua baino gehiago.

4-Etengabeko ikaskuntza

EB-15en %8,5 zebiltzan etengabeko ikaskuntza, eta azken lau urteotan joera hori ez da aldatu. Lisboako Estrategiak %12,5eko batez bestekoa jarri du helburu bezala, eta EBko herri guzti-guztiak %10era iristera gutxienez.

5-Inbertsioa giza baliabideetan: Hezkuntzako gastu publikoa, BPGren ehunekotan.

3.5.2.- Euskal Herriko egoera

1. Biztanleria landunaren hezkuntza-maila. Azken urteotan, lanerako adinean dauden biztanleen hezkuntza-maila nabarmen hobetu da, trebakuntza handirik gabeko landun zaharrak lan-merkatutik atera eta askoz trebakuntza handiagoa duten gazteak lan-merkaturatu izatearen ondorioz.

Espainiako INEren arabera, Hegoaldean lehen mailako ikasketak edo gutxiago zituzten biztanle landunen (16-64 urte) ehunekoa 7,7 puntu murriztu zen 2000-2004 bitartean. Joera hori orekatu egin da bigarren mailako ikasketak nahiz unibertsitateko ikasketak dituzten biztanleen gorakadari esker (5 eta 2,7 puntu, hurrenez hurren).

Iparraldean²⁰ Hegoaldean baino askoz gehiago dira bigarren mailako ikasketak dituztenak (%43,5 eta %17, hurrenez hurren). Goi-mailako hezkuntzan, aldiz, Iparraldea Hegoaldearen azpitik dabil (%20 eta %34, hurrenez hurren).

Kualifikazio edo prestakuntza handieneko sektoreek gaur egun enpleguan duten eragina aztertzea oso interesgarria da. Gai horren inguruan, EAERI buruzko informazioa daukagu bakarrik. 2003an egindako Lan Merkatuaren Erroldatik atera dugu informazio hori. Hala, enpleguaren %11,8 Eurostatek trebakuntza eta teknologia-maila handikotzat sailkatutako sektoreetan dagoela ikusten dugu, %23,2 goi-mailako prestakuntza handiko sektoreetan, eta %28,6 ezagutza-intentsitate handiko sektoreetan. Aurreko sektore guztiak, hots, trebakuntza edo kualifikazio handiko sektore horiek guztiak batera hartuta, EAEko biztanleriaren %38,3 era horretako sektoreetan dabilela ikusten dugu. Kopuru hori txiki samarra da oraindik.

Trebakuntza handiko sektoreetan diharduten landunek Eskuinaldean eta Debagoienean dute pisu erlatiborik handiena (%46,1, bietan), eta Debabarrenean eta Bilbon %40tik gorakoa da pisu erlatibo hori (%43 eta %40,5, hurrenez hurren). Gasteizen, Ezkerraldean eta Donostialdean %36-38 bitartekoa da pisu hori, eta gainerako bailaretan zertxobait txikiagoa (%36-38). Aiara da salbuespen bakarra, %28,4rekin, eta Bizkaiko bi biztanle-eremu nagusiak maila onean daude adierazle honi dagokionez.

3.12. GRAFIKOA. EAE-N, TREBAKUNTZA HANDIKO SEKTOREETAN DIHARDUTEN 16-64 URTE BITARTEKO LANDUNAK (Datu absolutuak eta % bertikalak)

Sektorea	Absolutuak	%
Sektoreak: Goi-teknologia	105.285	11,8
Sektoreak: Goi-mailako heziketa	207.292	23,2
Sektoreak: Jakintza-intentsitate handia	255.116	28,6
Trebakuntza handiko sektore bat edo beste	341.768	38,3
Gainerako sektoreak	551.671	61,7
Guztira	893.439	100

Iturria: Lan Merkatuaren Errolda. Eusko Jaurlaritza.


2 Eskola behar baino lehenago uztea da gizarte-bazterketaren eta marjinazioaren kausa garrantzitsuenetakoa. Europar Batasuna kezkatuta dago arazo horren hedadurarekin. Hala, definitu egin du, batetik, eta herrialde guztien jarraipena egin du, bestetik, arazoa konpontzeko neurriak hartzeko eskatuz. Bigarren Hezkuntzako lehen zikloa bakarrik egin eta ikasten edo trebatzen jarraitzen ez duten 18-24 urte bitarteko biztanleria izan da finkatutako adierazlea. EAEn, 1992az geroztik dauzkagu datuak, eta eskola behar baino lehenago utzitako kopurua gutxitu egin dela ikusten dugu: 1992an %25 zen, eta 2004an %12,4. Nafarroa Garaian eta Iparraldean handiagoa da ehuneko hori (%18²¹ eta %15,6, hurrenez hurren). Edonola ere, Euskal Herriko ehunekoa EBko batez bestekoaren (%18,5) azpitik dago pixka bat. Herrialde hauek dute eskola-porrotik handiena: Maltak (%45,0), Portugalek (%39,4), Espainiak (%30,4) eta Italiak (%23,5) (10. adierazlea).

²⁰ Giza baliabideei buruzko atalean esan dugunez, Akitaniako batez besteko balioa hartu dugu: Frantziako Estatuko batez bestekoa baino 3 puntu gutxiago.

²¹ Nafarroa Garaian buruz daukagun azken datua 2005ekoa da, eta datu horren arabera eskola-porrotak behera egin zuen, %17,2raino.

Euskal Herriko ekonomia eta gizarte garapenerako behategia
Observatorio para el desarrollo socio-económico de Euskal Herria
Observatoire pour le développement économique et social du Pays Basque

3.13 GRAFIKOA. ESKOLA BEHAR BAINO LEHENAGO UTZITAKOEN EHUNEKOAREN EBOLUZIOA 2004 (10. adierazlea)



Iturria: EUROSTAT, INSEE eta ISEI, INCE

Herri gehien-gehienetan eskola-porrota handiagoa da gizonen artean emakumeen artean baino. Euskal Herrian ere horixe gertatzen da, eta EAEn, adibidez, 2004an emakumeen %8,1ek utzi zuten eskola behar baino lehenago eta gizonen %16,5 (9 puntu gehiago).


3 Matematika, zientzia eta teknologiako tituludunak

Batzordeak berak dioenez, Europar Batasunean hutsune bat dugu goi-mailako tituludun kopuruan, Japoniaren eta AEBen aldean, esate baterako. EBN, 25 eta 64 urte bitarteko gizonen %23k eta emakumeen %20k dute goi-mailako tituluren bat. Japonian, %36 eta %32koa da kopuru hori, hurrenez hurren, eta AEBetan, aldiz, biztanle guztien %37k dute unibertsitate-tituluren bat.

3.12 grafikoan ikusten denez, Hegoaldean, goi-mailako hezkuntzako batez bestekoa Japoniaren eta AEBetakoaren parekoa da, baina zientzia eta teknologia alorreko tituluetan, askoz atzeratuago gabea. Nolanahi ere, bai adierazle orokorrean bai sexuaren arabera adierazlean Euskal Herrian EBko batez bestekoaren gainetik gaude (8.1, 8.2 eta 8.3. adierazleak).

Nabarmentzekoa da, bestalde, adierazle honetan unibertsitateko goi-mailako ikasketak eta lanbide-heziketako ikasketak sartzen direla, eta EAEn LHK pisu handia duela.

3.14. GRAFIKOA. ZIENTZIA ETA TEKNOLOGIAKO GRADUATUAK, 2003AN (8. adierazlea)



Iturria: EUROSTAT, INSEE, ISEI eta INCE

Nafarroa Garaiko datua 2004koa da, eta Espainiako Kalitate eta Ebaluazio Institutuak bildu zuen. Urte berean, EAEko datua 20,1ekoa zen, Espainiako Kalitate eta Ebaluazio Institutu horren beraren arabera. Datu horiek ondorengo taulan agertzen dira, eta azpimarratzekoak dira LHK EAEn duen pisua (Nafarroa Garaian halako hiru) eta sexuen arabera dagoen alde izugarria.

**ZIENTZIA ETA TEKNOLOGIAKO GRADUATUAK, 2004AN, HEGOALDEAN
IKASKETEN ETA SEXUEN ARABERA**


EAE: %20,1				NAFARROA GARAIA: %13,1			
Unibertsitatea %12,4		Lanbide-heziketa %7,7		Unibertsitatea %10,5		Lanbide-heziketa %2,6	
Giz.	Emak.	Giz.	Emak.	Giz.	Emak.	Giz.	Emak.
%12,5	%8,2	%16,3	%2,8	%11,0	%10,0	%4,3	%0,7

Iturria: Espainiako Kalitate eta Ebaluazio Institutu Nazionala

4 Bigarren Hezkuntza gainditzen duten 20-24 urte bitarteko biztanleak, EBko batez bestekoa baino handiagoa da Euskal Herrian, baina beste herri batzuetatik urruti dago (Eslovakian, adibidez, %91etik gora dago tasa hori). Adierazle honetan (7.1 adierazlea), geldialdi bat egon da 2001ez geroztik, Nafarroa Garaian bereziki, eta ikusten da gaur egungo egoera ekonomikoan gazte askok nahiago dutela lan-merkatuan sartu, ikasten jarraitu beharrean.

**3.15. GRAFIKOA. BIGARREN HEZKUNTZA GAINDITZEN DUTEN 25-64 URTE BITARTEKOEN
HEZKUNTZA-MAILA**


(kopuru osoaren ehunekoa) (7.1. adierazlea)



Iturria: EUROSTAT, INSEE eta ISEI, INCE

Adierazle honetan alde handia dago gizon eta emakumeen artean, azken horiek izanik hezkuntza-maila handiena lortzen ari direnak. Hala, maila honetan, adin-tarte honetako emakumeak historian zehar Europako aitzindariak izandako herrialdeen pareraino iritsi dira ia-ia.

**3.16 GRAFIKOA. BIGARREN HEZKUNTZA GAINDITZEN DUTEN 20-24 URTE BITARTEKOAK
SEXUEN ARABERA, 2004AN
(7.2 eta 7.3 adierazleak)**



Iturria: EUROSTAT, INSEE eta ISEI, INCE


Ez dugu Bizkaiari buruzko datu homogeneous, baina EUSTATEk hezkuntzari buruz egindako estatistikak aztertuta ikusten denez, Bizkaian EAEn baino handixeagoa da eskola-porrota, eta Bigarren Hezkuntza gainditzen duten 20-24 urte bitarteko biztanleen kopurua, berriz, txikixeagoa. Bi kasuetan ere Nafarroa Garaiko datuak oso antzekoak dira.

Nolanahi ere, bai EAEk bai Bizkaiak Lisboan 2010erako finkatutako helburua gainditu dute, 20-24 urte bitarteko emakumeen %85ek gainditzen baitu Bigarren Hezkuntza. Gizonezkoen artean zailagoa da helburu hori lortzea. Iparraldeak aukera hobeak ditu Nafarroa Garaiak baino 2010erako helburua lortzeko, baina bietan ere zaila izango dute, Bigarren Hezkuntza uzteko joera gero eta handiagoa baita batean nahiz bestean.

5 Etengabeko prestakuntza. Batzordeak azpimarratzen duenez, hezkuntza-sistema lana lortzeko bete beharreko baldintzetan edo hezkuntza-sare arruntetatik kanpo gelditu diren pertsonak lan-mundura bideratzeko ahaleginetan oinarritzen da batik bat. Horregatik, etengabeko ikaskuntza jende guztia zuzendutako ikuspegi zabal batetik bultzatzeko estrategia baten inguruan hausnartu beharra daukagu, ikaskuntza hori erakargarria egiteko ezaugarriak bilatuz (irakaskuntza-metodo egokiagoak, egitura demokratikoagoak eta abegitsu edo erosoagoak, orientazio-zerbitzuak, etab.).

Nolanahi ere, lana aurkitzera bideratutako etengabeko prestakuntzak berebiziko garrantzia izango du, eta badu dagoeneko, herrien oparotasunean, aldaketa teknologiko gero eta bizkorragoaren eraginez etengabe berritu behar ditugulako gure ezagutzak, gure lan-bizialdi osoan zehar.

3.17. GRAFIKOA. ETENGABEKO PRESTAKUNTZAN DABILTZAN 25-64 URTE BITARTEKO BIZTANLEEN EHUNEKOA (12. adierazlea)



Iturria: EUROSTAT, INSEE eta ISEI eta INCE

Euskal Herria %7 inguruko batez bestekoa zuen 2004an, EB-25eko batez bestekoaren (%9,4) azpitik, beraz, eta helburutzat finkatutako %12,5etik urruti, bai eta beste herri batzuetako ehunekoetatik urruti ere: Suedia %35,8, Finlandia %24,6 eta Erresuma Batua %21,3 (12. adierazlea).

Espainiako Estatuan 2005ean bultzada handia izan zuen etengabeko prestakuntzak²². Joera horrek eragin nabarmena izan zuen Hegoaldean, Nafarroa Garaian bereziki, %3,9tik %16,3ra pasa baitzen.

Prestakuntzari buruzko adierazle horretan ere alde handia dago sexuen artean, emakume gehiago baitabilta etengabeko prestakuntzan. INCEk 2005ari buruz emandako datuen arabera, Nafarroa Garaian lanerako adinean zeuden emakumeen %17 eta gizonen %15,3 ibili ziren halako ikastaroetan; EAEn, berriz, emakumeen %17,6 eta gizonen %12,6.


²² Etengabeko prestakuntzaren eskumena transferitu gabe dago, eta Hegoaldean Espainiako Estatuak du arlo hori diseinatzeko eskumena.

6 Hezkuntzako gastu publikoaren ehunekoa, BPGren ehunekotan

Gorago esan dugunez, giza baliabideetan inbertitzea oso garrantzitsua da produktibitatea hobetzeko. Horrek ez du esan nahi bi kontzeptuen artean edo giza baliabideetako gastuen eta hezkuntza-sistemako emaitzen artean lotura zuzen eta zehatzik dagoenik. Beste faktore kualitatibo batzuek ere eragina dute emaitza horietan, hala nola baliabide urriak erabiltzeko eraginkortasuna edo baliabide horien antolamendua. Dena den, Lisboa egindako Kontseiluan azpimarratu zenez, beharrezkoa da "giza baliabideetan biztanleko inbertitzen dena nabarmen ugartzea".²³ Gure kasuan, baliabideak areagotu arren, ezin dugu ahaztu bloke ekonomiko nagusiek, eta Europak bereziki, egindako esfortzuaren batez besteko intentsitatea.

Hezkuntzako gastu publikoa, BPGren ehunekotan, Europako batez bestekoa baino askoz txikiagoa da gurean. 2004an, Hegoaldeko batez bestekoa ez zen %3,7ra iristen (EBn %5aren gainetik zegoen adierazle hori). Iparraldean %5 bideratzen da hezkuntzara, Frantzia (%5,58) baino gutxiago (13. adierazlea).

3.18. GRAFIKOA. HEZKUNTZAKO GASTU PUBLIKOA, BPG-REN EHUNEKOTAN (13. adierazlea)



Iturria: EUROSTAT, INSEE eta INCE.
Nafarroa Garaiko datua 2004koa da.

Azken urteotan, Hegoaldean gutxituz joan da gastu publikoa, BPGren ehunekotan, nahiz eta, ikasle bakoitzeko batez besteko gastua handitu, azken bi hamarkadetan jaiotza-tasak izandako beherakadaren eraginez ikasketa-maila guztietan ikasle kopurua gutxitu izanaren ondorioz. Beherakada hori aprobetxatuz, murriztu egin da gastu publikoa, lehendik ere beste herri batzuen oso azpitik geunden arren. Adibide batzuk: Suedia (%7,47), Danimarka (%8,28) edo Espainiako Estatua bera (13. adierazlea).

²³ Presidentziaren ondorioak. Lisboako Europar Kontseilua. 2000ko martxoaren 23 eta 24a.

4. INGURUMENAREN HONDAMEN GERO ETA HANDIAGOA ETA HAZKUNDE EKONOMIKOA BEREIZTEN ²⁴

2001eko ekainean, Göteborgen egindako Europar Kontseiluan²⁵, garapen iraunkorrerako estrategia bat onartu zen, "oraingo belaunaldiaren beharrei erantzuteko, baina geroagoko belaunaldienak arriskuan jarri gabe". Estrategia horrekin, EBk Lisboan berrikuntza ekonomiko eta sozialaren inguruan hartutako konpromiso politikoa osatu zen, estrategia horri ingurumenaren ikuspegia gehituz eta politika publikoak lantzeko garaian aintzakotzat hartu beharreko ikusmolde berri bat finkatuz.

Kontseilu hartan iraunkortasuna lortzeko ingurumenean bete beharreko lehentasunak adostu ziren, halaber: klima-aldaketaren aurka borrokatzea, garraio iraunkorra ziurtatzea, osasun publikoaren aurkako mehatxuei aurre egitea eta natur baliabideak erantzukizunez kudeatzea. Helburu horiek lortzeko, EBren politiketan ingurumena txertatzea proposatzen zen. Jarraibide horiek Ingurumenaren VI. Ekintza Programan garatu ziren 2001an. Programa horretan helburu handiak finkatu ziren, haietako asko kopuruetan zehaztuta. Europar Batasunak ingurumenarekin duen konpromisoa azpimarratzen du horrek.

Jarraibide horiei jarraiki, Garapen Iraunkorrerako Euskal Ingurumen Estrategia 2002-2020 eta ingurumeneko abiaburuko programak (2002-2006 eta 2007-2010) onartu ziren EAEn. Estrategia horretan 2020ra bitartean bete beharreko 223 konpromiso zehaztu dira, eta neurrien garapenaren jarraipena egiteko urtero erabili beharreko bi mekanismo finkatu dira, halaber:

- Ingurumenaren Iraunkortasunari buruzko Txostena: finkatutako konpromisoei jarraiki egindako ekintza zehatzekin iraunkortasunean zenbat aurreratu den neurtzen du txosten horrek. Horrekin batera, gobernuak ingurumenaren iraunkortasunaren alde egindako lanaren balorazio orokorra egiten da, eta epe laburrera begira ditugun erronka nagusiak zehazten dira balorazio horren arabera.

²⁴ Nafarroa Garaia eta Iparraldeari buruzko daturik ez dugunez, azterketa hau EAEn buruz egin behar izan dugu bakarrik. Kontuan hartu behar da EAEn bizi direla Euskal Herri osoko biztanleen bi heren.

²⁵ Presidentziaren ondorioak. Göteborg, 2001eko ekainaren 15 eta 16a.

Euskal Herriko ekonomia eta gizarte garapenerako behategia
Observatorio para el desarrollo socio-económico de Euskal Herria
Observatoire pour le développement économique et social du Pays Basque

- 22 ingurumen-adierazle: adierazle horien arabera gizakion jarduerak ingurumenaren duten eragina eta eragin horren eboluzioa zertan den neurtu daiteke.

Nabarmentzekoa da, bestalde, Bizkaiko Foru Aldundiak 2005ean onartu zuen Garapen Iraunkorrerako Estrategia. Bizkaiko Garapen Iraunkorrerako Estrategia-Bizkaia 21 Programa delakoak oraingo beharrei erantzuten dien kudeaketa publikoa bultzatzen du, geroko belaunaldien etorkizuna arriskuan jarri gabe. Programa hori onartu zenean, iraunkortasuna aldundiaren esparru guztietara hedatu zen, eta erakunde osoak (sail guztiek, alegia) bete beharreko gida-plan bat jarri zen martxan. Abiaturuko plan horretan 30 ildo estrategiko eta 80 helburu zehatz jasotzen dira eta Bizkaia iraunkortasunerantz eramateko jarraitu beharreko ereduaren oinarriak finkatzen dira, horrela.

4.1 EAEko ingurumenaren egoera orokorra

Ingurumen-adierazle guztiak (ez oinarritzko egitura-adierazleak bakarrik) orokorrean aztertu ondoren, EAEko 2005eko Ingurumenari buruzko Txostenean ondorio hauek atera ziren:


1. Ura

Ibai eta itsasoetako uraren kalitateak okerrera egin zuen 2004an, 2003ren aldean.

Ibaiak: Estazioen %38 ez kutsatutzat sailkatu ziren 2004an, 2003an %51 ziren (2000n, %18) . Egoera Gipuzkoan okertu da bereziki²⁶. Ibai-tarte garrantzitsu batzuk (Nerbioi-Ibaizabalen, Debaren eta Oriaren arroak) gaizki daude oraindik.

Estuario eta itsasertzetako urak: Itsasertzean (kostaldeko urak) uraren kalitateak hobera egin du 1998az geroztik, baina, halere, ez kutsatutzat sailkatutako estazioen kopurua 2003ko %62tik %46ra murriztu da 2004an. Estuarioen alorrean oso bestelako arazoak ditugu: 2004an, laginak hartu ziren gune gehienek nolabaiteko kutsadura zuten. Kopuru zehatza %65koa izan zen, eta 1998an %71koa. Barne-barneko guneetan zeuden arazo larrienak, ibaietan eraginik handiena dutenetan, beraz.

4.1. GRAFIKOA. UREN KALITATEA (2000-2004)



Iturria: Lurralde Antolamendu eta Ingurumen Saila


²⁶ 2004ko kanpainen ez kutsatutako estazioen ehunekoa hauxe izan da: Araban eta Bizkaian %44 eta Gipuzkoan %13.

2. Aire

Airearen kalitateak ere okertzen jarraitu zuen 2004an.

Joan deneko lau urtean, airearen kalitateak okerrera egin du. Hala, 2004an, 12 egun izan genituen batez beste airearen kalitate txar edo oso txarrarekin (2001ean 2,8 egun). Egoera horrek Goierrin, Deba-Ibaizabalen eta Donostialdean izan zuen eraginik handiena, partikulen (PM10) eta ozonoaren kontzentrazioen igoeraren ondorioz, gehienbat.

4.2. GRAFIKOA. AIREAREN KALITATE TXARREKO EDO OSO TXARREKO EGUNAK (2001-2004)



Iturria: Lurralde Antolamendu eta Ingurumen Saila

Giza osasunerako onargarria den eguneko batez bestekoa 35 alditan baino gehiagotan gainditu zuten herri hauetako estazioek 2004an: Alonsotegi, Amorebieta-Etxano, Barakaldo, Basauri, Bilbo, Durango, Erandio, Portugalete, Zierbena, Beasain, Donostia, Eibar, Lezo, Arrasate eta Errearteria.

3. Natur baliabideen kontsumoa

Efizientziak hobetzen jarraitzen du, baina baliabideen kontsumoa ere etengabe handitzen ari da.

UR-ESKARIA, UR MOTAREN ARABERA. EAE, 2001, HM3-TAN

A. Kontsumorako eskaria A. Demanda consuntiva	Hm ³
A.1. Hirialdeko goi-eskaria / Demanda urbana en alta	287,9
A.1.1. Hirialdeko behe-eskaria / Demanda urbana en baja	173,5
A.1.1.1. Etxeak / Doméstica	100,4
A.1.1.2. Saltokiak / Comercial	20,6
A.1.1.3. Industria / Industrial	33,0
A.1.1.4. Udal eskaria / Municipal	14,7
A.1.1.5. Ureztatzea (pribatua) / Riego privado	0,9
A.1.1.6. Hiri aldeko abeltzaintza / Ganadería urbana	3,9
A.1.2. Kontrolatu gabeak / Incontrolados	114,4
A.2. Hirialdetik kanpoko eskaria / Demanda no urbana	114,1
A.2.1. Industria (hartune propioa) / Industrial de toma propia	58,1
A.2.2. Ureztatzea eta golf / Regadío y golf	55,2
A.2.3. Landa aldeko abeltzaintza / Ganadería rural	0,9
Guztira / Total	402

Iturria: Lurralde Antolamendu eta Ingurumen Saila

Ura. Eusko Jaurlaritzako Lurralde Antolamendu eta Ingurumen Sailak ur-eskariaren azterketa egin zuen 2002an eta 2003an, eta horri esker EAEko kontsumo orokorra zenbatekoa zen finkatu zen lehenbiziko aldiz. Azterketa horren arabera, 2001eko ur-eskaria —ura kontsumitzen duten erabilerekin sortutako eskaria—402 Hm³-koa izan zen²⁷.


EAEko etxeetan 130,4 litro ur kontsumitzen da biztanle eta eguneko, Europako herrietako batez bestekoaren erdialdean gaude, beraz. Industria da ur gehien kontsumitzen duen bigarren sektorea (behe-eskariaren banatutako uraren %19). Merkataritza dator ondoren (%12), eta udalen erabilera (%8), hirialdeko abeltzaintza (%2) eta ureztatze pribatua (%1), azkenik.

Energia. Euskal ekonomiak hazkunde bizkorra izan du azken urteotan eta energia-eskaria igotzea eragin du horrek. 2004an barne-kontsumo gordina (ekoizpena + inportazioak – esportazioak) 7.270 kpb-ekoa (kilotona petrolioren baliokide) izan zen EAEn, 1990ean baino %41 gehiago.

²⁷ Kopuru horren zati handiena (287,9 Hm³) behe-banaketako hiri-eskariari zegokion. Bertan, kontagailuek edo behe-eskariak jasotako kontsumoak (173,5 Hm³) eta kontrolatu gabeko erabilerak (114,4 Hm³ ur, hor sartzen dira iruzurrezko ur-hartzeak, sareko ihesak, kontagailuak zaharkituta gelditzearen ondorioz gutxiagi neurtzea, ura legez hartu arren kontagailurik ez dagoenean kontatzen ez dena) jasotzen dira.

Euskal Herriko ekonomia eta gizarte garapenerako behategia
Observatorio para el desarrollo socio-económico de Euskal Herria
Observatoire pour le développement économique et social du Pays Basque

4.3. GRAFIKOA. ENERGIAREN AZKEN KONTSUMOA, SEKTOREKA (kpb)




Iturria: Lurralde Antolamendu eta Ingurumen Saila

Petrolioaren deribatuak izan ziren energia-iturri nagusia, kontsumitutako energia guztiaren %41 hartuz. Gehien erabilitako bigarren iturria gas naturala izan zen (%34) eta hurrengoa, urrutia samar, erregai solidoak (%7). Energia berriztagarriek kontsumitutako energia guztiaren %4,9 hartzen dute.

Energiaren azken kontsumoari dagokionez, 2004an 5.574 kpb kontsumitu ziren guztira EAEn, eta industria eta garraioa izan ziren energia gehien kontsumitu zutenak (%48 eta %31, hurrenez hurren). Etxeetako kontsumoa %11koa izan zen, zerbitzuetakoa %7koa eta lehen sektorekoa %3koa. 1990-2004 bitartean, energiaren azken kontsumoa %38 handitu da (1.522 kpb). Garraioak izan dira igoera horren eragile nagusiak (%53), zerbitzuak hurrengoak (%17) eta etxebizitzak azkenak (%14).

EAEk 164 kpb-ko energia-intentsitate dugu BPGko 1.000 €-ko. Hortaz, Irlandaren eta Alemaniaren parean gaude, baina EB-15en azpitik (14. adierazlea). Biztanle bakoitzeko, EB-15ekoa baino %15 txikiagoa da gure energia-BPG. Azken kontsumoari dagokionez, biztanleko energia kontsumoa %4ra murrizten da.

4.4. GRAFIKOA. BALIABIDEEN KONTSUMOA ETA ENERGIA-EFIZIENTZIA (1992-2004) (14. adierazlea)



Iturria: Lurralde Antolamendu eta Ingurumen Saila

Materialak²⁸


1990-2003 bitartean, materialen beharra guztira (MBG) %24 handitu zen EAEn, 1990eko 165,6 milioi tonatik (Mt) 205,7 Mt-ra 2003an. Material horien jatorriari dagokionez, MBGren %20 bakarrik sortzen da EAEn bertan, gainerako %80 beste herri batzuetatik ekartzen dute: %36 Espainiako Estatutik eta %44 Espainia kanpotik.

Metalezko materialek osatzen dute MBGren %42. Metalezkoak ez diren material mineralak datoz ondoren (%15, harrobiko produktuak gehienbat) eta biomasa (%14) eta erregai fosilak (%11), hurrena.

EAEk bere jarduerari erantzuteko eskatutako material guztien %33 bakarrik sartzen dira ekonomian. Gainerako %67 material horiek lortzeko prozesuetan erabiltzen dira (hondakinak).

Biztanleko MBG 97 tonakoa izan zen 2003an. Espainian (2000) eta Europar Batasunean (1997), aldiz, behar hori biztanleko 50 tona ingurukoa da. Gure ekonomia industriari —industria astunari eta metalgintzari bereziki— oso lotuta egotearen ondorioz dago horrelako alde handia, industriak material asko eta asko eskatzen baititu. 2006rako biztanleko 81 Tm-tan finkatu zen helburua EAerako, baina ezinezkoa izan da helburu hori lortzea.

4.5. GRAFIKOA. BIZTANLEKO MATERIALEN BEHARRA, GUZTIRA, EAE-N




Iturria: Lurralde Antolamendu eta Ingurumen Saila

Baliabideen kontsumoaren efizientzia —BPG prezio konstanteetan zati MBG— %22 handitu zen 1990-2003 bitartean. Halere, 1997tik 2003ra materialen erabileraren efizientzia %7 murriztu zen.

Lurra. Lurra funtsezko baliabidea dugu, bizitzarako ezinbestekoak diren garrantzi handiko funtzioak betetzen dituelako alor askotan: ingurumenean, ekonomian, gizartean, kulturean... Gizakiak lurra artifizialdu ahala (etxebizitzak, azpiegiturak nahiz industriak eraikitzeak), lur horrek aipatutako funtzio horietako asko betetzeko gaitasuna galtzen du. Horregatik, lurraren erabilera arrazionala egin beharra dago, gizartearen garapen orekatua eta ingurumena babesteko duen garapena lortzeko.

²⁸ Gure gizarteko jarduera ekonomikoa honela laburbiltzen da: material eta energia jario bat dugu, nekazaritzatik, basogintzatik, arrantzatik, meatzaritzatik eta gas- eta petrolio-hobietatik ateratako lehengaiak ekonomian sartu eta ondasun eta zerbitzuak ekoizteko lehengai horiek eraldatuz hasten dena. Prozesu horren bidez, materialak kontsumitzaileenganaino eramaten dira, eta, hala, beren azken helmugara iristen dira: birziklatzea eta berrerabiltzea, zabortege batera hondakin bezala edo ingurumenara. Materialen beharra guztira (MBG) adierazleak jario horren lehen maila aztertzen du, hots, ekonomiak zenbat material eta energia eskatzen duen.

4.6. GRAFIKOA. ARTIFIZIALDUTAKO LUR-AZALERA, EAE-N, MOTA ETA URTEKO (HEKTAREAK)



Iturria: Lurralde Antolamendu eta Ingurumen Saila

2005ean, EAEko azaleraren %6,5 inguru (47.295 ha) erabiltza zegoen etxebizitza, jardura ekonomiko, ekipamendu nahiz azpiegituretarako. Biztanleko, 223 m² da hori, guztira. Garraio-azpiegiturak hartutako azalera artifizialdutako azalera osoaren %41 da, eta etxebizitzetarako erabilitakoa ere beste horrenbeste. Gainerako %18 jardura ekonomikoak garatzeko erabiltzen da.

1994az geroztik, %25 handitu da lur artifizialduaren azalera. Lur-okupazioaren hazkunde hori etxebizitzetarako erabilerekin izandako gorakadaren ondorioz gertatu da gehienbat, asko handitu delako etxebizitza kopurua. 1994-2005 bitartean 146.000tik gora etxebizitza eraiki ziren EAEn²⁹.



Hondakinak. Ingurumenaren ikuspegitik, hondakinek bi motatako arazoak sortzen dituzte. Batetik, natur baliabideak alferrik galtzen direla esan nahi du hondakinak sortzea eta ekoizpen eta kontsumo prozesuetan inefizientzia dagoela salatuz. Bigarrenik, hondakin horiei ematen zaientzako tratamenduak inpaktu larria izan dezakete ingurumenean, lurra, airea nahiz ura kutsatuz.

2004an 1.184.497 tona hiri-hondakin sortu ziren EAEn. Biztanleko 559 kg/bizt., EB-15eko batez bestekoa baino gutxiago (588 kg/bizt.). Kontsumoaren gorakadak 1998-2004 bitartean %15 hondakin gehiago sortzea eragin du (%14 biztanleko neurtuta).

Hiri-hondakinez gain, beren ezaugarri fisiokimikoengatik arriskutsuak diren bestelako hondakin batzuk ere sortzen dira. 2003an 371.821 tona hondakin arriskutsu sortu zen, gehienak ere (%42) industria siderurgiko eta metalurgikoko prozesu termikoetan. 1998az geroztik, %30 handitu dira hondakin arriskutsuak.

Hiri-hondakin balorizatuen (birziklatuak) kopurua handituz doa etengabe (%17 1998an, 2003an, berriz, %32). Gauza bera gertatzen da hondakin arriskutsuen balorizazioarekin (1994an %28, 2002an %47).


²⁹ Eusko Jaurlaritzako Etxebizitza eta Gizarte Gaietako Sailaren datuak.

4.7. GRAFIKOA. SORTUTAKO HONDAKINAK (1998-2004)**GENERACIÓN Y VALORIZACIÓN DE RESIDUOS URBANOS****GENERACIÓN Y VALORIZACIÓN DE RESIDUOS PELIGROSOS**

Iturria: Lurralde Antolamendu eta Ingurumen Saila

Klima-aldaketa. EAEko CO₂ isurketak urruti daude Europar Batasunak finkatutako helburuetatik³⁰.

2004an, berotegi-efektuko 20,4 milioi tona gas CO₂-ren baliokide isuri ziren guztira. EAEk energia elektrikoa inportatzen du, eta energia horrek isurketak sortzen ditu beste herrialde batzuetan. Beraz, gure jardura sozioekonomikoaren ondorioz egindako isurketa guztiak batuta, 24,6 milioi tona CO₂-ren baliokide isuri genuen guztira.


4.8. GRAFIKOA. BEROTEGI-EFEKTUKO GASAK ISURTZEN DITUZTEN ITURRI NAGUSIAK, EAE-N 1990-2004

Iturria: Lurralde Antolamendu eta Ingurumen Saila

³⁰ Nazio Batuen Klima Aldaketari buruzko Abiaturuko Hitzarmeneko Kyotoko Protokoloak (Nazio Batuek, 1998) klima-aldaketari aurre egiteko nazioarteko neurriak gogortu zituen. Aho batez onartu zen 1997ko abenduko Aldeen Biltzarraren 3. batzarraldian, eta 2005eko otsailaren 16an sartu zen indarrean. Hitzarmen horretan herrialde bakoitzak isuri zezakeena finkatu zen, I. Eranskinean (garatuak). Hala, EB-15eko estatuek %8 murriztu behar dituzte berotegi-efektuko gasen isurketak 2008-2012 bitartean. Euskal Herriak berez ez du inongo helbururik, Espainiako eta Frantziako estatuek dituzte (115 eta 100, hurrenez hurren, 2010erako).

1990-2004 bitartean, berotegi-efektuko gas garrantzitsuenen isurketa zuzenak %35 handitu ziren EAEn (15. adierazlea), eta energia-sektorea eta garraioa izan ziren hazkunde horren eragile nagusiak (%54 eta %36, hurrenez hurren). EB-15en berotegi-efektuko gasen isurketak %2 murriztu dira 1990tik 2003ra.

BEROTEGI-EFEKTUKO GASEN ISURKETAK BIZTANLEKO, EUROPAR BATASUNEAN, 2003AN (EAE, 2004)



Tm. CO₂ baliokidea / biztanlea


Iturria: Lurralde Antolamendu eta Ingurumen Saila

Ekoefizientzia. Ekonomia hazten ari da, baina ingurumeneko arazoak ere bai.

Zer da ekoefizientzia? BPGko unitate berdina ekoiztea, material eta energia gutxiago kontsumituz eta ingurumenean presio txikiagoa eraginez. Ekoizpenaren ekoefizientzia areagotzeko, hiru bide dauzkagu: teknologia hobek erabiltzea, ingurumena gutxiago kaltetzen duten material eta energiak erabiltzea betikoen ordez edo gure kontsumo-ohiturak aldatzea.

1990-2004 bitartean, aldentuz joan da hazkunde ekonomikoaren eta ingurumenaren hondamenaren arteko lotura, ingurumenaren gaineko inpaktu nagusiek gora egin duten arren, BPG baino gutxiago handitu direlako. Ekoefizientzia hobetu egin dela esan nahi du horrek.


4.9. GRAFIKOA. EKOEFIZIENTZIAREN EBOLUZIOA, EAE-N (INDIZEA 1990=100)



Iturria: Lurralde Antolamendu eta Ingurumen Saila

Ekoefizientziarik gutxien duten sektoreen artean garraioa nabarmentzen da. 1990-2004 bitartean, garraio-sektorean energia-kontsumoak izandako hazkundearen ondorioz (+%88), sektore horrek isuritako berotegi-efektuko gasak ere ugaritu egin dira (+%92). Aldi berean, autobide eta autobia sarearen luzera %43 handitu da tarte horretan. 2004an, sektore horrek ingurumenean duen eraginak gorantz jarraitu du, eta isurketa azidotzaileak eta ozono troposferikoaren aitzindariak ere ugaritu egin dira. Eboluzio horrek garraioaren artean dagoen desorekarekin eta mugikortasun-ohiturekin du zerikusia.

4.10. GRAFIKOA. GARRAIOAREN EKOEFIZIENTZIA (1990-2004)



Iturria: Lurralde Antolamendu eta Ingurumen Saila

INFORMAZIO-ITURRIAK

- Udaberriko Europar Kontseiluari zuzendutako komunikazioa: Trabajando juntos por el crecimiento y el empleo. Relanzamiento de la Estrategia de Lisboa.- COM(2005) 24 final.

Biztanleria:

- Estatistika-erakundeak: INE, EUSTAT, EUROSTAT

Argitalpenak: "Euskal Herria datuen talaia" (Udalbiltza) 2002

Barne-produktu gordina eta produktibitatea:

- Estatistika-erakundeak: INE, EUROSTAT, INSEE-Aquitaine

Argitalpenak:

- Europar Batzordea: *Regiones: Anuario estadístico 2006: Datos 2000-2004*
- Nafarroako Gobernua:
 - *La Economía Navarra* (urtean behingo txostena, hainbat zenbaki)
 - *Coyuntura Económica de Navarra* (egoerari buruzko hiru hilean behingo aldizkariak, hainbat zenbaki)
- Eusko Jaurlaritza:
 - *La Economía Vasca* (urtean behingo txostena, hainbat zenbaki)
 - *Koijunturaz* (egoerari buruzko hiru hilean behingo aldizkariak, hainbat zenbaki)
- INSEE CONJONCTURE: "Principaux Indicateurs" saila

I+G eta enpresen inbertsioa

- Estatistika-erakundeak: INE, EUSTAT, EUROSTAT, INSEE-Aquitaine eta INEC-Espainiako Kalitate eta Ebaluazio Institutu Nazionala

Argitalpenak:

- Europar Batzordea: "Regiones: Anuario estadístico 2006: Datos 2000-2004"
- Eusko Jaurlaritza: "Libro Blanco del sistema vasco de innovación: Horizonte 2010"
- INEC: "Sistema Estatal de Indicadores de la educación" (hainbat urte)

Lan-merkatua

- Estatistika-erakundeak: INE, EUSTAT, EUROSTAT, INSEE-Aquitaine

Argitalpenak:

- Gaindegia: "Euskal Herria eskualdeka" 2006
- Europar Batzordea:
 - "Regiones: Anuario estadístico 2006: Datos 2000-2004"
 - "Tercer Informe sobre la Cohesión Económica y Social. COM (2004) 107"

- Nafarroako Gobernua:
 - *La Economía Navarra* (urtean behingo txostena, hainbat zenbaki)
 - *Coyuntura Económica de Navarra* (egoerari buruzko hiru hilean behingo aldizkariak, hainbat zenbaki)
- Eusko Jaurlaritza:
 - *La Economía Vasca* (urtean behingo txostena, hainbat zenbaki)
 - *Koiventuraz* (Egoerari buruzko hiru hilean behingo aldizkariak, hainbat zenbaki)
 - *Censo del Mercado de Trabajo*
- INSEE CONJONCTURE: "*Marche du travail*" saila

Gizarte-kohesioa

- Estatistika-erakundeak: INE, EUSTAT, EUROSTAT, INSEE-Aquitaine

Argitalpenak:

- Europar Batzordea:
 - "*L'Europe en chiffres Annuaire Eurostat 2005*"
 - "*Régions: Annuaire statistique 2006 Données 2000-2004*"
 - "*Terceer Informe sobre la Cohesion Economica y Social. 2004*"
 - "*Statistiques Generales et Regionales Population et Conditions Sociales 2006*". Egilea: Michal Mladý
- Espainiako Lan eta Gizarte Gaietarako Ministerioa:
 - "*Indicadores Sociales de Espainia y Panorámica Social de España. 2005*"
 - "*Discriminación salarial por sexo: un análisis del sector privado y sus diferencias regionales en España*". 1999
- Eusko Jaurlaritza:
 - "*Encuesta sobre Desigualdades Sociales*". 2000 eta 2004
 - "*Encuesta Condiciones de Vida. 2004*"
 - "*Bienestar e Integración Social*" (M^a Luz de la Cal Barredok egindako monografikoa)
 - "*Distribución de la renta*" (Mertxe Larrañaga Sarriegik egindako monografikoa)
- Republica Francesa: "*Plan de Cohesion Social. 2005*"
- Hego Euskal Herriko Aurrezki Kutxen Federazioa: "*Servicios Sociales. 2005*"

Hezkuntza

- Estatistika-erakundeak: INE, EUSTAT, EUROSTAT, INSEE—Aquitaine, INEC-Espainiako Kalitate eta Ebaluazio Institutu Nazionala eta ISEI-Irakaskuntza Sistema Ebaluatu eta Ikertzeko Erakundeak

Argitalpenak:

- Europar Batzordea:
 - "*Régions: Annuaire statistique 2006 Données 2000-2004*"
 - "*Comunicación de la Comisión COM (203)685f*"
- Espainiako Hezkuntza eta Zientzia Ministerioa: INEC: "*Sistema Estatal de Indicadores de la educación*" (hainbat urte)
- Eusko Jaurlaritza: ISEI: "*Indicadores de la enseñanza*" (hainbat urte)

Besterik:

- Euskadiko Ekonomia eta Gizarte Gaietarako Batzordea: "*Memoria socioeconómica 2005*"
-

Ingurumena

- Estatistika-erakundeak: EUROSTAT

Argitalpenak:

- Europar Batzordea:
 - *"Sexto Programa de Acción Comunitario en Materia de Medio Ambiente"* (6º EAP) DO L 242, 2002ko irailaren 10ekoa
 - *"Revisión de la Política Medioambiental 2003"* COM (2003)745f
 - *"Informe de la Comisión SEC (2005)160"*
- Eusko Jaurlaritza:
 - EUSTATen 14. monografikoa: *"Medio Ambiente"*, Iñaki Arto Olaizolak eta Xabier González Vegasek prestatua.
- Lurralde Antolamendu eta Ingurumen Saila:
 - *"Medio Ambiente en la Comunidad Autónoma del país Vasco. Indicadores Ambientales"* (hainbat urte)
 - *"Emisiones de Gases Efecto Invernadero en Europa, 1990-2003"*
 - *"Costes Externos del transporte en la Comunidad Autónoma del país Vasco. Mugikost-2005"*


ERANSKINA

EGITURA- ADIERAZLEEN TAULAK

EGITURA ADIERAZLEEN TAULEN AURKIBIDEA

• IZATEZKO BIZTANLERIA.....	54
• BIZTANLEKO BPG, EROSTEKO AHALMENTA PAREKATUTA (EAP).....	55
• BPG, EGUNEKO PREZIOETAN, MILAKA EUROTAN.....	56
• BIZTANLEKO BPG, EROSTEKO AHALMENA PAREKATUTA (EAP).....	57
• ESKULANAREN PRODUKTIBITATEA, LANDUNEKO. BPGD, EROSTEKO AHALMENA PAREKATUTA (EAP).....	58
• ENPLEGU TASA GUZTIRA (15-64 URTE).....	59
• EMAKUMEZKOEN ENPLEGU-TASA (15-64 URTE).....	60
• GIZONEZKOEN ENPLEGU-TASA (15-64 URTE).....	61
• ENPLEGU-TASA (55-64 URTE).....	62
• ENPLEGU-TASA (55-64 URTE).....	63
• EMAKUMEZKO ZAHARRENEN (55-64 URTE) ENPLEGU-TASA.....	64
• GIZONEZKO ZAHARRENEN (55-64 URTE) ENPLEGU-TASA.....	65
• I+G-KO GASTUA, BPG-ETIK.....	66
• GAZTEEN HEZKUNTZA-MAILA, GUZTIRA.....	67
• EMAKUME GAZTEEN HEZKUNTZA-MAILA.....	68
• GIZON GAZTEEN HEZKUNTZA-MAILA.....	69
• ENPRESEN INBERTSIOA. SEKTORE PRIBATUAREN KAPITAL FINKOAREN ERAKETA GORDINA, BPG-TIK.....	70
• POBREZIAN MURGILTZEKO ARRISKU-TASA, TRANSFERENTZIA SOZIALAK EGIN ETA GERO. BIZTANLERIA GUZTIRA.....	71
• POBREZIAN MURGILTZEKO ARRISKU-TASA, TRANSFERENTZIA SOZIALAK EGIN ETA GERO. EMAKUMEZKOAK.....	72
• POBREZIAN MURGILTZEKO ARRISKU-TASA, TRANSFERENTZIA SOZIALAK EGIN ETA GERO. GIZONEZKOAK.....	73
• IRAUPEN LUZEKO LANGABEZIA-TASA. BIZTANLERIA GUZTIA.....	74
• EMAKUMEZKOEN IRAUPEN LUZEKO LANGABEZIA-TASA.....	75
• GIZONEZKOEN IRAUPEN LUZEKO LANGABEZIA-TASA.....	76
• IKASKETAK BEHAR BAINO LEHENAGO UTZITAKOAK.....	77
• ZIENTZIA ETA TEKNOLOGIAKO GRADUATUAK. BIZTANLERIA GUZTIA.....	78
• ZIENTZIAN ETA TEKNOLOGIAN GRADUATUTAKO EMAKUMEAK.....	79
• ZIENTZIAN ETA TEKNOLOGIAN GRADUATUTAKO GIZONAK.....	80
• HEZKUNTZAKO GASTU PUBLIKOA, BPGD-ETIK.....	81
• ETENGABEKO PRESTAKUNTZA.....	82
• BEROTEGI-EFEKTUKO GASEN ISURPENA, GUZTIRA.....	83
• EKONOMIAREN ENERGIA-INTENTSITATEA.....	84

IZATEZKO BIZTANLERIA




Xehetasunak herrika

	1995**	1996	2001	2002	2004
BIZKAIA	1156,7	1135,6	1122,6	1137,5	1142,5
EAE	2110,9	2107,3	2082,6	2116,2	2128,8
NAFARROA	523,6	535,3	555,8		569
IPARRALDEA	250,2		237,4		
EU25	446 390,2	447 377,8	452 015,9	452 640,8	456 863,3
ALEMANIA	81 538,6	81 817,5	82 259,5	82 440,3	82 531,7
AUSTRIA	7 943,5	7 953,1	8 020,9	8 065,1	8 140,1
BELGIKA	10 130,6	10 143,0	10 263,4	10 309,7	10 396,4
ZIPRE	645,4	656,3	697,5	705,5	730,4
DANIMARKA	5 215,7	5 251,0	5 349,2	5 368,4	5 397,6
ESLOVAKIA	5 356,2	5 367,8	5 378,8	5 379,0	5 380,1
ESLOVENIA	1 989,5	1 990,3	1 990,1	1 994,0	1 996,4
ESPAINIA	39 305,4	39 383,1	40 376,4	40 850,5	42.345,30
ESTONIA	1 448,1	1 425,2	1 367,0	1 361,2	1 351,0
FINLANDIA	5 098,8	5 116,8	5 181,1	5 194,9	5 219,7
FRANTZIA	57 752,5	57 936,0	59 042,7	59 342,5	59 900,7
GREZIA	10 595,1	10 673,7	10 931,2	10 968,7	11 041,1
HOLANDA	15 424,1	15 493,9	15 987,1	16 105,3	16 258,0
HUNGARIA	10 336,7	10 321,2	10 200,3	10 174,9	10 116,7
IRLANDA	3 597,6	3 620,1	3 833,0	3 899,9	4 027,7
ITALIA	56 845,9	56 846,3	56 967,7	56 993,7	57 888,2
LETONIA	2 500,6	2 469,5	2 364,3	2 345,8	2 319,2
LITUANIA	3 643,0	3 615,2	3 487,0	3 475,6	3 445,9
LUXENBURGO	405,7	411,6	439	444,1	451,6
MALTA	369,5	371,2	391,4	394,6	399,9
POLONIA	38 580,6	38 609,4	38 254,0	38 242,2	38 190,6
PORTUGAL	10 017,6	10 043,2	10 256,7	10 329,3	10 474,7
ERRESUMA					
BATUA	58 500,2	58 703,7	59 862,8	59 139,9	59 673,1
TXEKIAR ERREP.	10 333,2	10 321,3	10 232,0	10 206,4	10 211,5
SUEDIA	8 816,4	8 837,5	8 882,8	8 909,1	8 975,7
AEB	261 687,0	264 162,2			291 685,1
JAPONIA	125 570,0	125 503,8			127 273,8

Iturria: EUROSTAT, EUSTAT, INSEE, Nafarroako Gobernua


*2001etik aurrera ez da izatezko eta zuzenbidezko biztanleriaren arteko bereizketarik egiten, eta erroldan dauden biztanleak zenbatzen dira bakarrik.

** Euskal Herriko datuak 1991eko erroldatik atera ditugu, gainerakoak 1995ekoak dira.

BIZTANLEKO BPG, EROSTEKO AHALMENA PAREKATUTA (EU-25=100)**Xehetasunak herrika**


	1999	2000	2001	2002	2003
BIZKAIA	19.966,80	21.112,90	21.653,70	22.832,30	24.091,90
EAE	21.474,10	22.707,80	23.829,2	25.236,8	26.239,5
NAFARROA	21.446,1	23.591,4	24.536,8	25.940,80	26.756,1
IPARRALDEA	18.771,30	19.917,90	20.667,5	21.234,10	21.603,00
EUROGUNE 11	20.792,5	22.154,2	22.898,7	23.450,2	23.545,3
ALEMANIA	21.338,6	22.463,4	22.930,3	23.402,1	23.569,5
AUSTRIA	23.501,8	25.243,3	25.451,0	25.831,5	26.281,7
BELGIKA	21.679,1	23.430,1	24.439,9	25.315,7	25.676,8
ZIPRE	15.046,6	16.234,9	17.272,8	17.663,6	17.377,2
DANIMARKA	23.701,7	25.333,3	26.039,6	26.148,7	26.314,8
ESLOVAKIA	8.803,8	9.526,8	10.104,4	10.994,6	11.298,1
ESLOVENIA	13.850,0	14.623,9	15.406,3	16.052,1	16.527,1
ESPAINIA	17.318,4	18.530,5	19.413,7	20.497,0	21.174,5
ESTONIA	7.285,3	8.232,2	8.798,5	9.703,5	10.488,8
FINLANDIA	21.148,0	22.932,9	24.087,1	24.706,6	25.377,7
FRANTZIA	21.332,4	22.809,3	23.769,1	24.163,6	24.212,8
GREZIA	13.587,2	14.622,9	15.270,8	16.623,9	17.634,1
HOLANDA	23.067,2	24.945,7	26.487,0	26.990,9	27.132,2
HUNGARIA	9.796,2	10.626,9	11.637,4	12.512,8	12.896,5
IRLANDA	22.913,9	25.315,1	26.871,9	28.625,6	29.161,0
ITALIA	21.388,1	22.750,8	23.344,8	23.705,1	23.447,8
LETONIA	6.402,9	7.100,9	7.734,2	8.338,5	8.881,6
LITUANIA	7.027,2	7.657,5	8.368,1	9.019,8	9.845,8
LUXENBURGO	40.925,8	44.644,9	44.756,7	47.443,6	50.843,6
MALTA	14.444,0	15.619,1	15.423,9	15.976,1	15.796,7
POLONIA	8.623,7	9.388,3	9.606,0	9.979,9	10.214,5
PORTUGAL	15.112,6	16.150,7	16.650,1	17.117,8	15.841,4
ERRESUMA BATUA	21.009,4	22.584,8	23.596,5	24.991,9	25.267,4
TXEKIAR ERREP.	12.162,5	12.789,0	13.513,7	14.288,5	14.749,7
SUEDIA	22.140,3	23.889,2	24.020,7	24.483,0	25.193,1

Iturria: EUROSTAT, EUSTAT, INSEE eta Nafarroako Gobernua

BPG, EGUNEKO PREZIOETAN, MILAKA EUROTAN**Xehetasunak herrialdeka**

	1995	1996	1997	1998	1999	2000	2001	2002	2003	2004	2005
NAFARROA	7.454.734	7.948.073	8.513.113	8.999.222	9.541.669	10.345.409	11.049.510	11.831.965	12.555.323	12994759,3	13384602,1
ARABA	4.115.339	4.427.828	4.740.933	5.181.539	5.583.968	5.817.014	6.354.303	6.850.882	7.212.871		
BIZKAIA	14.382.889	14.910.173	15.967.649	17.279.745	18.902.788	20.569.973	21.710.963	23.062.551	24.689.527	28.061.462	
GIPUZKOA	9.148.528	9.726.200	10.358.021	11.152.345	11.826.145	12.786.126	13.617.011	14.223.493	15.024.723		
EAE	27.646.756	29.064.201	31.066.603	33.613.629	36.312.901	39.173.113	41.682.277	44.136.926	46.927.121	53.336.123	
IPARRALDEA	38.792	40.412	42.016	43.105	44.643	47.581	48.530	48.954	51.421	54341,4396	


Iturria: EUROSTAT, EUSTAT, INSEE eta Nafarroako Gobernua

1. BIZTANLEKO BPGD, EROSTEKO AHALMENA PAREKATUTA (EU-25=100)**Xehetasunak herrika**

	1995	2000	2001	2002	2003	2004	2005
BIZKAIA	97,5	105,9	106,5	109,2	113,3	115,6	118,4
EAE	104,5	113,9	114,6	117,2	120,7	123,4	125,6
NAFARROA	105,6	118,3	116,5	120,5	123,1	124,1	125,1
IPARRALDEA	100,9	99,9	99,3	98,6	99,4	98,9	99,1
EU25	100,0	100,0	100,0	100,0	100,0	100,0	100,0
EU15	110,7	109,9	109,6	109,4	109,2	108,8	109,2
ALEMANIA	119,4	112,0	110,1	108,7	108,1	107,5	108,1
AUSTRIA	129,1	127,9	124,3	122,2	121,9	121,4	121,9
BELGIKA	120,1	116,9	117,3	116,7	117,8	117,9	117,8
ZIPRE	86,1	86,2	89,3	83,5	82,2	81,5	82,2
DANIMARKA	124,9	126,8	126,3	122,5	122,6	122,2	122,6
ESLOVAKIA	44,0	47,9	48,9	51,3	52,3	54,0	52,3
ESLOVENIA	68,4	73,3	74,8	75,3	76,8	78,5	76,8
ESPAINIA	87,5	91,7	92,3	94,6	97,8	97,6	97,8
ESTONIA	35,5	43,5	44,8	46,6	48,5	50,4	48,5
FINLANDIA	105,7	114,3	114,1	113,7	113,7	115,0	113,7
FRANTZIA	115,2	114,0	114,8	112,9	111,0	110,9	111,0
GREZIA	72,1	72,5	73,7	77,6	81,2	82,5	81,2
HOLANDA	120,2	121,6	124,2	122,0	121,0	119,6	121,0
HUNGARIA	49,6	53,5	56,4	58,6	60,5	61,7	60,5
IRLANDA	99,1	126,6	129,5	132,6	132,5	134,2	132,5
ITALIA	115,3	111,3	111,4	109,0	106,9	105,3	106,9
LETONIA	29,8	35,5	37,4	38,9	41,0	43,7	41,0
LITUANIA	34,1	38,5	40,8	42,4	45,8	48,0	45,8
LUXENBURGO	178,7	218,6	213,3	212,6	214,7	216,5	214,7
MALTA		77,8	73,6	73,2	73,1	72,1	73,1
POLONIA	40,7	46,3	45,9	45,6	46,0	47,4	46,0
PORTUGAL	73,1	77,3	77,2	76,7	74,7	73,4	74,7
ERRESUMA BATUA	110,4	114,0	115,1	117,8	118,5	119,2	118,5
TXEKIAR ERREP.	70,0	64,8	66,1	67,6	68,8	70,0	68,8
SUECIA	118,2	119,8	116,4	114,8	115,2	116,2	115,2
AEB	153,4	155,3	152,4	152,1	154,0	159,1	154,0
JAPONIA	124,4	115,8	114,2	112,4	114,1	119,1	114,1

Iturria: Eurostat, Eustat eta INSEE eta Nafarroako Gobernua

ESKULANAREN PRODUKTIBITATEA, LANDUNEKO. BPG, EROSTEKO AHALMENA PAREKATUTA (EU-25=100)




Xehetasunak herrika

	1995	1996	1997	1998	1999	2000	2001	2002	2003	2004
BIZKAIA	126,5	125,4	127,7	128,7	131,3	130,6	126,7	125,4	127,3	122,3
EAE	127,3	126,7	126,4	126,9	128,3	125,9	123,9	123,1	122,8	120,7
NAFARROA		123,7							118,5	110,8
IPARRALDEA		112,9							111,9	110,2
EU25	100	100	100	100	100	100	100	100	100	100
EU15	110,1	109,9	109,9	109,6	109	108,4	108,2	107,9	106,8	106,4
ALEMANIA	108,7	108,4	107,2	105,8	104,4	102,3	101,5	101,1	101,1	101
AUSTRIA	107,1	107,6	105,1	104,5	105,3	106,4	104,3	103,2	103,5	104,8
BELGIKA	128,6	127	126,7	125,4	125,1	125,3	125,5	126	127,4	128,9
ZIPRE	80,3	80,0	80,7	82,8	79,2	77,5	78,3	72,8	72,3	72,9
DANIMARKA	102,5	103,1	103,3	102,5	104,9	106,1	105,8	102,7	104,3	105,1
ESLOVAKIA	46,3	47,4	49,3	51,0	52,3	54,7	56,1	59,1	58,9	59,4
ESLOVENIA	61,8	64,6	67,6	69,0	70,9	70,5	72,1	71,8	73,5	74,8
ESPAINIA	103,3	102,9	100,9	100,4	101,5	98,6	98,6	99,9	101,6	100
ESTONIA	33,2	35,0	38,2	40,1	41,5	44,7	45,9	47,1	48,5	50,5
FINLANDIA	108,4	107,5	110,1	112,8	109,4	110,5	110,2	109	108,8	110
FRANTZIA	124,7	124,2	125,6	126,1	124,5	123,4	124	122	120,6	120,1
GREZIA	84,3	84,8	88,8	83,9	85,1	86,8	89,9	95,3	98,2	97,1
HOLANDA	106,3	104,8	103,5	103,1	101,8	102	108,3	107,1	107,1	107,8
HUNGARIA	57,8	58,1	59,6	60,6	60,1	60,8	64,5	67,5	68,1	69,4
IRLANDA	114,9	117,1	123,1	121,1	121,4	122,9	125,3	129,3	129,8	132,9
ITALIA	122,8	122,2	120,8	122,3	120,7	118,9	116,3	112,4	109,5	108,3
LETONIA	31,2	32,6	33,2	34,5	35,7	38,2	39,5	40,2	41,2	43
LITUANIA	30,8	31,5	32,9	35,1	34,2	36,4	40,3	45,1	47,3	49,7
LUXENBURGO	138,7	136,8	140,6	144,6	152,3	154,9	145,4	142,6	142,2	145,9
MALTA					95,2	88,5	83,8	84,8	85,1	82,8
POLONIA	43,6	44,8	45,7	46,2	48,7	50,5	49,7	50,5	57,9	59,6
PORTUGAL	69,3	68,7	69,5	70,3	71,8	72,7	72,3	72	70,6	69,8
ERRESUMA BATUA	101,3	102,1	103,4	104	103,6	104,5	106,3	108,7	109	108,3
TXEKIAR ERREP.	57,1	59,0	57,4	57,4	59,2	59,2	60,4	60,8	62,6	64,6
SUEZIA	103,9	104,9	105,9	104,8	106,8	106,7	103	101,9	102,6	105,1
AEB	131,6	132,4	133	133,7	134,5	133,1	133,4	135,6	138	140,2
JAPONIA	95,6	97,2	96,3	94,7	94	94,5	94,9	95	96,7	98,7

Iturria: EUROSTAT, EUSTAT, INE eta INSEE

3.1 ENPLEGU TASA GUZTIRA (15-64 URTE)




Xehetasunak herrika

	1995	1996	1997	1998	1999	2000	2001	2002	2003	2004	2005
BIZKAIA	46,3	46,8	47,7	50,5	53,2	54,1	56,6	59,9	60,5	62,1	62,7
EAE	48,5	49,5	50,9	53,9	56,4	57,5	59,9	61,0	62,6	63,1	65,5
NAFARROA		56			60,8	64,2	64,7	64,4	65,3	66,5	69,1
IPARRALDEA							61,1	61,4	61,6	61,2	62,6
EU25			60,6	61,2	62	62,4	62,8	62,8	62,9	63,3	
ALEMANIA	64,6	64,1	63,7	63,9	65,2	65,6	65,7	65,4	64,9	64,3	65,4
AUSTRIA	68,8	67,8	67,8	67,9	68,6	68,5	68,4	68,7	69,0	67,8	68,6
BELGIKA	56,1	56,2	56,8	57,4	59,3	60,5	59,9	59,9	59,6	60,3	61,1
ZIPRE						65,7	67,9	68,5	69,2	68,9	68,5
DANIMARKA	73,4	73,8	74,9	75,1	76	76,3	76,2	75,9	75,1	75,7	75,9
ESLOVAKIA				60,6	58,1	56,8	56,8	56,8	57,7	57,0	57,7
ESLOVENIA		61,6	62,6	62,9	62,2	62,8	63,8	63,4	62,6	65,3	66,0
ESPAINIA	46,9	47,9	49,5	51,3	53,8	56,3	57,8	58,5	59,8	61,1	63,3
ESTONIA				64,6	61,5	60,4	61,0	62,0	62,9	63,0	64,4
FINLANDIA	61,6	62,4	63,3	64,6	66,4	67,2	68,1	68,1	67,7	67,6	68,4
FRANTZIA	59,5	59,5	59,6	60,2	60,9	62,1	62,1	62,4	62,7	62,6	62,6
GREZIA	54,7	55	55,1	56	55,9	56,5	56,3	57,5	58,7	59,4	60,1
HOLANDA	64,7	66,3	68,5	70,2	71,7	72,9	74,1 (p)	74,4	73,6	73,1	73,2
HUNGARIA		52,1	52,4	53,7	55,6	56,3	56,2	56,2	57,0	56,8	56,9
IRLANDA	54,4	55,4	57,6	60,6	63,3	65,2	65,8	65,5	65,5	66,3	67,6
ITALIA	51	51,2	51,3	51,9	52,7	53,7	54,8	55,5	56,1	57,6	57,6
LETONIA				59,9	58,8	57,5	58,9	60,4	61,8	62,3	63,3
LITUANIA				62,3	61,7	59,1	58,1	59,9	61,1	61,2	62,6
LUXENBURGO	58,7	59,2	59,9	60,5	61,7	62,7	63,0	63,6	62,2	62,5	63,6
MALTA						54,2	54,7	54,4	54,2	54,0	53,9
POLONIA			58,9	59	57,6	55	53,4	51,5	51,2	51,7	52,8
PORTUGAL	63,7	64,1	65,7	66,8	67,4	68,4	69,0	68,8	68,1	67,8	67,5
ERRESUMA BATUA	68,5	69	69,9	70,5	71,1	71,2	71,4	71,3	71,5	71,6	71,7
TXEKIAR ERREP.				67,3	65,6	65	65,0	65,4	64,7	64,2	64,8
SUEDIA	70,9	70,3	69,5	70,3	71,7	73	74,0 (b)	73,6	72,9	72,1	72,3
AEB	72,5	72,9	73,5	73,8	73,9	74,1	73,1	71,9	71,2	71,2	71,2
JAPONIA	69,2	69,5	70	69,5	68,9	68,9	68,8	68,2	68,4	68,7	

Iturria: EUROSTAT, EUSTAT, INE, INSEE, Nafarroako Gobernua eta Gaindegia

3.2 EMAKUMEZKOEN ENPLEGU-TASA (15-64 URTE)




Xehetasunak herrika

	1995	1996	1997	1998	1999	2000	2001	2002	2003	2004	2005
BIZKAIA	33,3	33,8	34,0	35,8	39,2	39,3	42,3	45,5	48,1	50,5	52,2
EAE	34,4	35,3	36,4	38,7	42,2	43,0	46,3	48,1	50,4	51,5	54,6
NAFARROA		38,6			43,8	48,3	49,7	50,0	53,1	54,1	58,2
IPARRALDEA						54,0	54,0	53,6	56,1	55,1	57,0
EU25			51,1	51,8	52,9	53,6	54,3	54,7	55,0	55,7	
ALEMANIA	55,3	55,3	55,3	55,8	57,4	58,1	58,7	58,8	58,9	58,5	59,6
AUSTRIA	59,0	58,4	58,6	58,8	59,6	59,6	60,1	61,3	61,7	60,7	62,0
BELGIKA	45,0	45,4	46,5	47,6	50,4	51,5	51,0	51,4	51,8	52,6	53,8
ZIPRE						53,5	57,1	59,0	60,2	58,7	58,4
DANIMARKA	66,7	67,4	69,1	70,2	71,1	71,6	72,0	71,7	70,5	71,6	71,9
ESLOVAKIA				53,5	52,1	51,5	51,8	51,4	52,2	50,9	50,9
ESLOVENIA		57,1	58,0	58,6	57,7	58,4	58,8	58,6	57,6	60,5	61,3
ESPAINIA	31,7	33,1	34,6	35,8	38,5	41,3	43,1	44,4	46,3	48,3	51,2
ESTONIA				60,3	57,8	56,9	57,4	57,9	59,0	60,0	62,1
FINLANDIA	59,0	59,4	60,3	61,2	63,4	64,2	65,4	66,2	65,7	65,6	66,5
FRANTZIA	52,1	52,2	52,4	53,1	54,0	55,2	55,2	55,9	56,7	56,9	57,0
GREZIA	38,1	38,7	39,3	40,5	41,0	41,7	41,5	42,9	44,3	45,2	46,1
HOLANDA	53,8	55,8	58,0	60,1	62,3	63,5	65,2	66,2	66,0	65,8	66,4
HUNGARIA		45,2	45,4	47,2	49,0	49,7	49,8	49,8	50,9	50,7	51,0
IRLANDA	41,6	43,2	45,9	49,0	52,0	53,9	54,9	55,4	55,7	56,5	58,3
ITALIA	35,4	36,0	36,4	37,3	38,3	39,6	41,1	42,0	42,7	45,2	45,3
LETONIA				55,1	53,9	53,8	56,1	56,8	57,9	58,5	59,3
LITUANIA				58,6	59,4	57,7	56,9	57,2	58,4	57,8	59,4
LUXENBURGO	42,6	43,8	45,3	46,2	48,6	50,1	50,8	51,5	50,9	51,9	53,7
MALTA						33,1	32,7	33,9	33,6	32,7	33,7
POLONIA			51,3	51,7	51,2	48,9	47,7	46,2	46,0	46,2	46,8
PORTUGAL	54,4	54,9	56,5	58,2	59,4	60,5	61,3	61,4	61,4	61,7	61,7
ERRESUMA BATUA	61,7	62,5	63,1	63,6	64,3	64,7	65,0	65,0	65,2	65,3	65,6
TXEKIAR ERREP.				58,7	57,4	56,9	56,9	57,0	56,3	56,0	56,3
SUEDIA	68,8	68,1	67,2	67,9	69,4	70,9	72,3	72,2	71,5	70,5	70,2
AEB	65,8	66,3	67,1	67,4	67,6	67,8	67,1	66,1	65,7	65,4	
JAPONIA	56,4	56,8	57,6	57,2	56,7	56,7	57,0	56,5	56,8	57,4	

Iturria: EUROSTAT eta EUSTAT

3.3 GIZONEZKOEN ENPLEGU-TASA (15-64 URTE)




Xehetasunak herrika

	1995	1996	1997	1998	1999	2000	2001	2002	2003	2004	2005
BIZKAIA	59,3	59,7	61,4	65,1	67,2	68,8	70,8	74,1	72,9	73,7	73,2
EAE	62,4	63,5	65,2	68,8	70,4	71,8	73,4	73,8	74,5	74,7	76,4
NAFARROA		72,8			76,9	79,5	79,0	78,6	76,9	78,3	79,4
IPARRALDEA							68,4	69,3	67,5	67,4	68,3
EU25			70,2	70,6	71,0	71,2	71,3	71,0	70,8	70,9	
ALEMANIA	73,7	72,6	71,9	71,9	72,8	72,9	72,6	71,8	70,9	70,0	71,2
AUSTRIA	78,5	77,3	77,1	77,0	77,6	77,3	76,7	76,4	76,4	74,9	75,4
BELGIKA	66,9	66,9	67,1	67,1	68,1	69,5	68,8	68,3	67,3	67,9	68,3
ZIPRE						78,7	79,4	78,8	78,8	79,8	79,2
DANIMARKA	79,9	80,0	80,5	79,9	80,8	80,8	80,2	80,0	79,6	79,7	79,8
ESLOVAKIA				67,8	64,3	62,2	62,0	62,4	63,3	63,2	64,6
ESLOVENIA		66,0	67,0	67,2	66,5	67,2	68,6	68,2	67,4	70,0	70,4
ESPAINIA	62,5	62,9	64,5	66,8	69,3	71,2	72,5	72,6	73,2	73,8	75,2
ESTONIA				69,6	65,8	64,3	65,0	66,5	67,2	66,4	67,0
FINLANDIA	64,2	65,4	66,2	67,8	69,2	70,1	70,8	70,0	69,7	69,7	70,3
FRANTZIA	67,2	67,0	66,9	67,4	68,0	69,2	69,3	69,1	68,9 ^(b)	68,4	68,3
GREZIA	72,5	72,7	72,1	71,7	71,1	71,5	71,4	72,2	73,4	73,7	74,2
HOLANDA	75,3	76,5	78,8	80,2	80,9	82,1	82,8	82,4	81,1	80,2	79,9
HUNGARIA		59,5	59,7	60,5	62,4	63,1	62,9	62,9	63,5	63,1	63,1
IRLANDA	67,1	67,5	69,1	72,1	74,5	76,3	76,6	75,4	75,2	75,9	76,9
ITALIA	66,9	66,7	66,5	66,8	67,3	68,0	68,5	69,1	69,6	70,1	69,9
LETONIA				65,1	64,1	61,5	61,9	64,3	66,1	66,4	67,6
LITUANIA				66,2	64,3	60,5	59,5	62,7	64,0	64,7	66,1
LUXENBURGO	74,4	74,3	74,3	74,5	74,5	75,0	74,9	75,5	73,3	72,8	73,3
MALTA						75,0	76,6	74,7	74,5	75,1	73,8
POLONIA			66,8	66,5	64,2	61,2	59,2	56,9	56,5	57,2	58,9
PORTUGAL	73,5	73,9	75,5	75,9	75,8	76,5	77,0	76,5	75,0	74,2	73,4
ERRESUMA BATUA	75,1	75,5	76,6	77,3	77,8	77,8	78,0	77,6	77,7	77,8	77,6
TXEKIAR ERREP.				76,0	74,0	73,2	73,2	73,9	73,1	72,3	73,3
